

ARRASATE ^{PRESS}

1992ko azaroak 20

171. zenb.



**Hogei
bosniar
bailarara**


Zentru Psikopedagogikoa

**Umeei
laguntzeko**

EMAKUMEEN OSASUNA

1. INFORMAZIO OROKORRA.

- ELIKADURA.
- ARIKETAK.
- EMAKUMEAREN OSASUNA ETA ZIKLOAK.



2. MENOPAUSIA: AURREKO ETA ONDORENGO IRTENBIDE DESBERDINAK.



EMALEA: M^o LUZ ESTEBAN.

(BASAURIKO FAMILI PLANGINTZA
ZENTRUKO MEDIKUA)

NOIZ : AZAROAREN 23 eta 30 ean.

ORDUA: 3.30 etan.

NON: A.E.D.n "PABLO URANGÁ."

ANTOLATZAILEAK: "EKIN" EMAKUME

HAITE.

GATZAGAn


erdi erdian...

ZUHAITZ jatetxea

ARAMAIO
okindegiaMaisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06Memesa
79 42 22Aldizkari honek
Euzko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Inpotentzia

Gaur egungo mundu honetan oso limitatuta gaudela esan dezakegu. Guk uste dugun bezala bizi ahal izateko, ez dago batere erraztasunik. Dena dago kondizionatuta, bai legegatik eta baita batzuen moralarengatik ere. Eta horregatik, sarri gutako edozein aurkitu daiteke egoera bitxi batean: bere barnean gatazka bat dauka; bere pentsatzeko moduak gauza bat dio, baina kanpora begira, zera ikusten du: kanpoak ez duela onartzen, eta kasu honetan, beharbada ez dauka nahikoa ausardia kontsekuentzia horiek jasateko, edo, ausardia izan arren, kontestuak guztiz ezinezko bihurtu du bestela.

Arazo latzena, hauxe da. Askotan "inposatutako" edo "gehiengoak asumitutako" edozer aztertzen hasten zarenean, guztiz okerra edo arazoigabekoa iruditzen zaizula pentsa dezakezu, eta hala ere, zuk derrigorrez onartzera behartzen zaitu gizarteak.

Arrarotzat edo negatibotzat hartzen da, "horrela idatzita dagoena", aldatzen edo indarra kentzen saiatzea; ez dago, ez, ohitura handirik, galdera hauek serioски egiteko. Baina hau zer-

gatik? Ezin al da beste modu batean egin? Kexatu gaitezen, altxa dezagun ahotsa.

Gauza bat da egoista izatea, gauzak modu determinatu batetan nahi izatea, beste zer kontutan izan gabe; eta oso desberdina da, zuk gauzak aldatu nahi izatea, deñontzat ahal den justuenak izan daitezen, eta gehienbat, norberak hori konkretuki sufritu behar badu.

Hain nazkagarria den sentimendu hori aipatzean, badago gauza bat azken aldian burutik urrundu ezin dudana. Bilboko Gaztetxeaz ari naiz. Okupatuta zegoen eta beraz legea zeukan aurka, baina zera zeukaten (bertakoek): guztiz frogatuta eta erakutsita, erabilpen txalogarria eta guztiz premiazkoa izan dutela bere bizitzan (6 urte t' erdi baino gehiago). Guztiz insonorizaturik zegoela, gainera. Baina, hala ere Bilboko Udalak, egunez eguneko praktikan Gaztetxeak egindako guztia kontuan hartu nahi izan gabe, Bilboko (ez bakarrik) gazteen baliabide edo/eta instrumentu behar-beharrezko hori bertan behera zapuztu du. Ezin da hori horrela geratu, ez da bidezkoa eta.

"ZIRIKATU"
IKER BARANDIARAN



LEIRE

• ARRASATE PRESS •


Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oliden (77 06 90). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Golo Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Aranxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Xabier Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingarugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopia, Daniel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzeriatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba



ZENBAKI
Aholkularitza

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39



ITURRIOTZ

taberna
Girorik
jatorrena!

Tfnoa: 79 16 04



Alkoholarekin arazoak dauzkazu?

Agian,
"Alkoholiko
Anonimoek" lagundu
ahal dizute!!

Alkoholiko
Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

••••

Maxi Eroskin lapurtzat hartua

Nire emazteari, Ines Amadorri, Maxi Eroskin gertatua kontatzera nator. Larunbat arratsaldean, jenderik gehien zegoen garaian Maxi Eroskitik irtetera zihoala, alarma jo eta jo hasi zen. Ia ordubetez erretentuta eduki zuten lapurretan egin zuelakoan, bertako langileek erregistratu, detektorean behin eta berriz pasaraziz. Nahiago izan zuten Ines lapurra zela sinistea, erruduna "akatsik gabeko" makina hura zela sinistea baino.

Geure aldetik denuntzia ere sartu dugun arren, orrialde hauen bidez Inesek jasan behar izan zituen bejazioak salatu nahi ditut, izan ere langile haiek guzti hori ordurik puntarenean eta beste bezero guztien aurrean egin zuten. Hasieran ukatu ondoren, behin bakarrik eman zuten megafoniaz akatsaren berri, baxterre errepikatu gabe.

JUAN MANUEL BLANCO

••••

Mugitu gaitezen

Euskadin bizi dugun industri narriapen progresiboak, ia sektore gehienei eta gero eta enpresa txiki eta ertain gehiagori eragiten dienak, zera eskatzen du: gizartea egoeraren larritasunaz jabetzea eta sindikatu guztiok enplegua mantentzearen eta berrindustrializazio-neurri

zehatzen aldeko jarrera erasotzaileagoa hartzea, baldin eta industri sarearen deskonposaketan eta horrek dakartzean ondorio sozio-ekonomikoetan itzulezinezko egoerekin topo egin nahi ez badugu: are gehiago, kontutan hartzen bada krisiak oraindik behea jo ez duela eta bere ondorio laboral eta sozialak hasi baino ez direla egin.

Hemen, Deba Garaian, dagoeneko, industri sarea nahiko deseginda dago, milaka lanpostu ari dira galtzen Enplegu Erregulaziorako Espedienteen bidez nahiz langile eszedente handiak planteatzen dituzten beste bide batzuen bidez, hala nola, jubilazio aurreratuak, lanerako ezgaitasunak eta borondatezko deuseztapenak, eta txarrena da kasurik gehienetan langileek ez dutela inongo oposiziorik jarri edo oso gutxi behintzat. Enplegua mantentzearen aldeko exigentzia ez da oso sendoa (batez ere eszedente horien irteera bide ez traumatikoetatik egiten ari dela hartzen dute oinarritzat, nahiz eta guk zalantza handiak ditugun, baita jubilazio aurreratu eta borondatezko deuseztapenen kasuan ere).

Patronalak planteatzen dituen lan eszedenteak, besterik gabe onartzea, ez eztabaidatzea eta Enplegu Erregulaziorako Espedienteak sinatzea, etorkizunerako planik gabe daudela barne, hutsegite handia iruditzen zaigu; izan ere, zonaldeko enpleguari gero eta eraso handiagoak egiten dizkiote.

Desmantelamenduaren aurkako borroka lantegiz lantegi zehaztea funtsezkoa da;

maila orokorrean kontra egin eta enpresetan banan-banan desmantelamendu hori pak-tatzerik ez dago.

Horregatik, Deba Garaiko CCOO, garrantzi handiko hainbat enpresatan, hala nola, Mayc, Feliziano Aranzabal, Polmetasa eta UCEM Transformatu Metalikoak-en, Enplegu Erregulaziorako Espedienteak patronalarekin pak-tatzearen aurka agertu gara, batzuetan zonaldeko sindikatu guztiekin batera eta beste-tan ESK eta LABekin bat etorritz.

PAKO MORALES

••••

Haserre xamar

Kaixo!
Haserre xamar nago zuekin 1992ko urriak 2ko 163. alean agertu zen informazio bat dela eta.

"Izen propioak" sailean Arrasate Saskibaloi taldea utzi zuen elgoibartar bati buruz hitz egiten zenuten. Hamar lerrototako informazioan bi hutsegite nabarmen egin zenuituzten. Batetik, ez da Aitor Rementeria Arrasate Saskibaloi taldeak fitxatu zuen elgoibartarra, Andoni Rementeria baizik. Eta bestetik, ez nuen taldea utzi, pentsa zitekeen errendimendurik eman ez nuelako, osasun arazoak zirela medio baizik.

Besterik gabe eta hurrengo batean iturri fidagarri-gotan oinarrituko zaretelakoan, agur.

ANDONI REMENTERIA



Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

LAURA

GAZTE MODA

Erdiko kale, 30
ARRASATE
Tfnoa: 79 57 20

Zer iruditzen zaizu emakumeak apaiz izatea?



**Miren Ibabe
Langilea (22 urte)**

Ondo iruditzen zait, zergatik ez? gizon eta emakumeen arteko berdintasuna ez dago ba!



**Asier Bergaretxe
Langabetua (20 urte)**

Ondo dago, emakumeek eskubide berbera dute.



**Igone Diaz de Gereñu
INEMeko langilea
(37 urte)**

Gizona den bezala, berdín izan daitezke. Ez dit ardura ez baitnaiz katolikoa, baina ondo iruditzen zait.



**Felix Merchan
Igeltseroa (29 urte)**

Emakumeak, gizonen moduan apaiz izan daitezke.




**Jose Gil
Garraiolaria (23 urte)**

Nire ustez ondo dago, jende gazteak onartuko luke, nagusientzak akaso zailagoa izango da.



**Kontxi Zabarte
INEMeko langilea
(36 urte)**

Nahiz eta gehiegi ez nporta, uste dut emakumea gizona bezain apaiz ona izan daitekeela.



**Gaizka Bake
Jubilatua (67 urte)**

Ez zait ondo iruditzen, emakumeak emakume moduan, gizonak gizonen modua, mojak mojen moduan eta fraideak fraideen moduan. Ezinbestean apaizak gizonetzkoak.



**Benita Merchan
Etxekoandrea (51 urte)**

Nire ustez ez lukete izan behar, orain arte bezala izan behar du betik. Emakumeok ez ditugu sekretuak gizonak bezain ondo gordetzen.



GARAGORRI

**Betaurrekoen merkealdia
3. adina
2.500 PTatik aurrera**

Iturriotz, 29
Tfnoa: 79 16 98
ARRASATE

Bidekurutzeta, 13
Tfnoa: 76 13 73
BERGARA

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetzak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igalatoria 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero) 79 05 81
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterra 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 20
 Egunez: J.A. Inzar. Erguin.
 Gaez: Camacho, Oxirondo.

Larunbata 21
 Egunez: Amezuza, Santa Marina.
 Gaez: Puy, Barrenkale.

Igandea 22
 Egunez: Aurora Ruiz, Maala.
 Gaez: Puy, Barrenkale.

Astelehena 23
 Egunez: A.M. Morales.
 Gaez: Guallar, San Antonio.

Asteartea 24
 Egunez: Alberto Azkoaga, Ferrerías.
 Gaez: Estella, Matxiategi.

Asteazkena 25
 Egunez: S. Español, Iturrioz
 Gaez: Mozos, Pedro Deunaren.

Osteguna 26
 Egunez: M.Corcuera, Musakola.
 Gaez: Camacho, Oxirondo.

20 OSTIRALA

ZINEA

"El cabo infernal" (7,9.30)

POP ROCK KONTZERTUA

"Tilves band" taldearen pop rock kontzertua. Elorrioko Arriola Kultur Aretoan. Gaueko 11etan.

GOIKOBALUREN KONTZERTUA

Goikobalu. Bilboko Sociedad Filarmonikan. "Concento Musikal" orkestarekin batera. Arratsaldeko 8etan.

21 LARUNBATA

ZINEA

"Juego de patriotas" (7,9.30)

ARGIA TONBOLA

Argia tonbolarako boletoak salgai. Taberna eta Euskaltegietan. Sari txikiak txartelak erositako tokian bertan eskura daitezke.

ANDALUZIAKO JAIALDIA

Andaluziako II. jaialdia. Arratsaldeko 4.30etatik 8.30etara. Eskoriatzako Frontoian.

ARRASATE MUSIKALEN KONTZERTUA

Arrasate Musikal Orkestaren kontzertua. XX. urteurrenaren ospakuzina. San Juan Bataiatzailearen Parrokian. Arratsaldeko 8.30etan.

22 IGANDEA

ZINEA

"Juego de patriotas" (7,9.30)

SANTA ZEZILIA EGUNA

Musikarien eguna.

LUMAZKO IDAZLANEN ERAKUSKETAREN AZKEN EGUNA

Lumazko idazlanen erakusketaren azken eguna. Harresi Aretoan.

ARGIA EGUNA

Argia aldizkariarentzat laguntza lortzeko mahaia.

MENDI IRTEERA

Besaide Mendizale Elkarteak antolatutako irteera. Urkiaga-Adi-Orreagatik. Irteera: goizeko 7etan Garibaitik.

BANDAREN KONTZERTUA

Bergarako Udal musika bandaren kontzertua. Novedades Aretoan. Eguerdiko 12.30etan. Sarrera: 200 PTA.



ANDALUZIAKO II. JAIALDIA

Bihar larunbata Al Andalus elkarteak antolatutako Andaluziako II. Jaialdia ospatuko da. Bertan hainbat taldek hartuko dute parte: Oñatiko Oñak, Arrasateko Extremadurako dantza taldea eta "Al Andalus"eko Rocioko abesbatza, "Alegria de la sierra", "Sueños de Andalucía", umeentzako antzerki taldea eta Elgoibarko "Nathalia" taldea. Ekintza hauek Eskoriatzako Frontoian izango dira eta arratsaldeko 4.30etan hasi eta 8.30ak arte luzatuko dira.

ARGIA

ARGIA EGUNA

Igande honetan Argia Eguna burutu da Euskal Herri osoan. Egun hori dela eta, beti bezala mahaia jarriko da Portaloian eta bertan zenbait material salgai, urtekariak eta egutegiak besteak beste.

ARRASATE MUSIKALEN 20. URTEURRENA

Arrasate Musikalek 20. urteurrena ospatzen duela eta, bihar larunbata Arrasate Musikal Orkestra Sinfonikoaren eskutik kontzertua izango da. San Juan Bataiatzailearen Parrokian arratsaldeko 8.30etan.

23 ASTELEHENA**ZINEA**

"Juego de patriotas" (7,9.30)

EMAKUMEEN OSASUNARI BURUZKO HITZALDIA

Emakumeen osasuna eta menopausiari buruzko hitzaldia. M^a Luz Esteban medikuak. Arratsaldeko 3.30etan. AEDn. EKIN emakume taldeak antolatuta.

24 ASTEARTEA**ZINEA**

"Juego de patriotas" (7,9.30)

DIPOSITIBA EMANALDIA

Frantses Pirineotako diapositiba emanaldia Aretxabaletan. Durana kalean. Arratsaldeko 7.30etan.

EAJ-REN BILERA

EAJ-PNVko afiliatuen bilera. Arratsaldeko 7.30etan. Batzokian.

25 ASTEAZKENA**HITZALDIA**

Everest 92

Everesti buruzko hitzaldi eta diapositiba emanaldia. UNEDeko Aretoan. Arratsaldeko 7etan. Emaleak: Josu Bereziartua eta Alberto eta Felix Iñurrategi.

PIRAGUISMOARI BURUZKO HITZALDIA

Piraguismo eta ur biziak gaiari buruzko hitzaldia. Arratsaldeko 7.30etan Bideo gelan. Aretxabaletako bideo gelan.

26 OSTEGUNA**NORUEGARREN ESPOLOIARI BURUZKO PELIKULA**

Noruegarren espoloiari buruzko pelikula. Emalea: Antonio Miranda. Aretxabaletako Zaraia zinean. Arratsaldeko 7.30etan.

HIESARI BURUZKO ASTEA BERGARAN

Hil honen 23tik 29 arte HIESari buruzko astea burutuko da Bergaran. Lau egunetan hitzaldi batzuk izango dira, arratsaldeko 7etan Kultur Etxean. 23an "VIH/HIE-Saren aspektu nagusiak" izeneko hitzaldia izango da, 24an "HIESa eta Sexualitatea", 25ean "HIESa eta Hezkurtza" eta 26an "HIE-Saren oraina eta geroa Euskadin". Erakusketa ere zabalik egongo da astelehenetik igandera bitartean. Eta hurrengo larunbatean, hilak 28 jaialdia izango da Arrasateko Zakarrak taldearen eskutik; gaueko 11etan eta Gaztetxean. Eta igandean, hilak 29, Informazio mahaia jarriko da Herriko Enparantzan.

HITZALDIA: ZERGATIK ETA ZERTARAKO EUSKALDUN?

Datorren azaroaren 27an, ostirala, arratsaldeko 7etan "Zergatik eta zertarako euskaldun" izenpean hitzaldia burutuko da. Joseba Arregi, Jesus Mari Mugika, Beñat Oihartzabal, Paulo Iztueta eta Itziar Mendizabal izango dira hizlari. Euskadi Irratiak 10 urte betetzen dituela eta, erakunde horrek antolatzen du hitzaldia.

**MENDIKO HAMABOSTALDIA ARETXABALETAN**

Aretxabaletako Murrukixo taldeak mendiko hamabostaldia antolatu du. Pasa den astelehenean hasi ziren ekintza, hitzaldi eta erakusketak baina datorren astean ere izango da aipatzekorik. Igandean, esatebaterako, Gipuzkoako itzuliaren barruan Deba-Urkarregi ibilaldia burutuko da. Asteartean, Pirineotako diapositiba emanaldia; asteazkenean, piraguismoa eta ur biziak gaia hartuz, bideoa; ostegunean Antonio Mirandaren hitzaldia: Noruegarren espoloi gaitzat eta ostiralean izozketei buruzko beste hitzaldi bat izango dira, besteak beste.

**EAJ-PNVREN BILERA**

EAJ-PNVk bilera burutuko du asteartean. Bertan aztertuko diren gaiak honako hauek izango dira: Probintzia eta Herrialde mailan aztertutako gaiak, tabernaren antolakuntza eta Sabin Etxerako bonuen salmenta. Arratsaldeko 7.30etan izango da Batzokian.

“Droga uztea funtsezkoa izan zen. Horrekin jarraitu izan banu ez nintzatekeen hemen egongo, eta gainera, ez du zentrurik medikuaren laguntza eskatzeak beste alde batetik norbere burua matxakatzen ari bazara. (...) Daukadana ez da ona, baina badira truko batzuk, ekintza batzuk eramaten lagutzen dutenak. (...) Alde batetik badago gizartearen bazterkeriaren arriskua, baina badago beste arrisku mota bat ere, nork bere burua baztertzea, alegia. IHESdun gaixoen marginazioa, ijito, beltz, drogazale edo apur bat ezberdinak diren guztien diskriminazioarekin batera etortzen da.”

Jon Salaberri. 1992-11-16

egin

“Arrasate Korporazio Kooperatiboaren sareak gidatzen dituen ‘kupula zuzendariak’ egoera jasangaitzera ekarri gaitu, bazkide langileon gehiengoak AKKari buruz dugun informaziorik ezagatik. (...) Lagunok, AKKn gastatzen denari buruz ez dago datu gardenik, goi karguen ordainketa-politikatik hasi eta Zerbitzu-kooperatiba, Sektorekako Estatutu Sozialak etberaino.

Guzti horrek zuzenean eragiten digu langileoi. Euskadiko kooperatiben antolaketa berriaz baino ez gara ari, eta hala ere, bazkide langileon organu errepresentagarrietatik urruti ari dira gure etorkizunari buruzko erabakiak hartzen. (...) Informazioa esigitu beharra dago. Ez dugu utzi behar ‘bazkide bat, botu bat’ printzipioa desartu dadin; onartezina da AKKn milionariak egiteko ordainketa politikak aurrera jarraitu dezan. Azken finean, serioski aurreratu behar dugu ‘AKK geldiarazteaz’, holding hori abiada handian ari baita hazten oskurantismo izugarritz”.

Mila Larrañagak 1992-11-12

egin

Nola garatu duzue Bosniarrak ekartzeko proiektua?

Hasieran, umeak etorriko zirelakoan planteiatu genuen, baina gero familia osoak etorriko zirela eta CEAR-ekin, errefuxiatuei laguntzeko Estatuko erakundearekin, jarri ginen harremanetan.

Han adierazi ziguten %60a pertsona helduak ekarri beharko genituzkeela eta gainontzeko %40a umeak. Geneuzkan baliabide ekonomikoak zein materialak aztertu eta gero, 40 pertsona ekartzeko erabakia hartu genuen, 24 ume eta 16 heldu.

Bildu ginen, proiektua CEAR, Jaurilaritzan eta Foru Aldundian aurkeztu eta proiektua berez ona dela jakin dugu.

Hila bukatu aurretik 1.400 bosniar iritsiko dira Estatura, eta ez dira gehiago etorriko gobernua 1.500 pertsonako muga ezarri duelako. Ez lagundu ezker, hainbeste jende hilgo dela jakinda lotsagarria iruditzen zait pertsona-kopuruan jarri den muga. Badakit CEAR-en 3.500 pertsona jaso ahal izateko moduko 40 proiektu aurkeztu direla... beraz, 1.500 pertsonako kopuru hori zabaltzea espero behar.

Udaletxeekin lortu ditugun akordioak inportanteak dira, 6 hilabete eta gero oraindik hemen jarraitu beharra badute horien laguntza ezinbestekoa izango zaigu eta, baita enpresariena ere... baina benetan inportantea hauxe da: gure proiektuak oso-osorik huts eginez gero, 40 pertsona prest daude laguntza osoa emateko. Horretaz gain, aipagarria da 200-300 pertsonako laguntzaile taldea dagoela, eta baita ekonomikoki zein lana egiteko jende gehiago ere.



Nuria Agirre

Bosniarekiko Elkartasun batzordeko partaidea



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Osasuna lan-munduan, hitzaldia eta manifestaldia


Pasa den ostiralean, Angel Carcoba CCOOetako lan-mundurako Osasun Saileko Estatuko buruak hitzaldia eskaini zuen Monterrongo hitzaldi-aretoan. Iluntzean, berriz, "Errudunei zigorra, lan-istripua patronalaren terrorismoa" lemapean manifestaldia burutu zen herriko kaleetan zehar. Dirudienez, hemendiak aurrera, lan-istripuren bat gertatzen den bakoitzean manifestazioa egiteko asmoa dago.

Gaztetxean MCD eta Drap Bruts

Udala eta auzokideekin izandako arazoan ondoren, joan den larunbatean kontzertua burutu zen Gaztetxean, MCD eta Drap Bruts taldeekin. Kontzertua gaueko 9etan hasi zen, eta aurretik agindutako moduan, 12etarako bukatu zen. Ordutegia alde batera, esan behar kontzertua bero-beroa izan zela eta jende asko bildu zela bilbotar eta kataluniarren musikaz ondo pasatzeko.

Tabernariak kezkatuta arautegi berriagatik

Tabernetarako araudi berria dela eta, tabernariak asanblada egin zuten joan den astean. Tabernarien iritiz, arautegi berria ez da bat ere argia, ez ordaindu



Arrasate frantsesen menpeko garaian

Bi urtetan lanean ihardun ondoren, Arrasate Zientzia Elkarteko partaideek, "Arrasate, frantsesen menpeko garaia"ri buruzko liburua aurkeztu zuten pasa den ostegunean. Liburuaren egileak Jabier Balanzategi, Jose Angel Barrutiabengoa, Javier Eguiara eta Inazio Olaizola izan dira, Juan Luis Aranbarri eta Jesus Mari de la Fuenteren laguntzaz. Liburuak 800 orrialde dauzka, 1807-1813 urteei dagozkienak; orduan 200.000 frantssez pasatu ziren Arrasatetik, hemen 2.000 lagun besterik bizi ez zirenean. Udaletxean egindako aurkezpenean adierazi zuten, egindakoa oso lan ona da eta baliteke, eskuragarri eta irakurgarriagoa bihurtzeko laburpen bat egitea.

behar diren isunei buruz ari denean, eta ezta tabernak ixteko kompetentzia Udal-tzaingoari edo Ertzantzari dagokion erabakitzerakoan ere. Azkenik, Udalarari araudi berriari buruzko argitasunak eskatzeko akordioa hartu zen asanbladan.

Eliza konpontzeko dirulaguntza

Gipuzkoako Foru Aldundiak azken batzarrean erabaki zuenez, hamazortzi milioitako dirulaguntza emango du Arrasateko

parrokia berritzeko. Berritze lanak fase desberdinetan egingo dira: lehen fasean teiltatua konponduko da, ondoren elizaren kanpokaldea txukunduko, gero atrioa eta azkenik barrukaldea eta kanpandorra.

Gabonetan argiteria indartu

Gabonetan kaleetan argi bereziak jartzeko, Udalak 480.000 PTako aurrekontua dauka. Diru horrekin, hiru arkuak eta Udaletzeko balkoia jantziko dira.

Urriko Gurutze Gorriko Datuak

Deba Garaiko Gurutze Gorriak emandako datuen arabera, pasa den hilean bailadan 26 auto istripu gertatu ziren, horietatik 6 Arrasaten. Trafikoko istripuengatik edo beste arrazoi batzuegatik trasladatutakoak 65 pertsona izan dira guztira: 51 arinki zauritua, 13 larri zauritukoak eta hildako bat.

Soldaduskaren aurkako ekintzak

Herriko ikasleek, soldaduskaren aurkako borroka eguna egin zuten pasa den asteartean. Greba egiteaz gain, eguerdian manifestaldia burutu zuten, ehundaka lagunez osatua.

JAIOTZAK

- Mikel de la Maza Gorosabel. Azaroaren 7an.
- Nagore Vazquez Sanchez. 10ean.
- Andrea Sanz Trejo. 12an.
- Noelia Garcia Casquete. 13an.
- Sara Sanchez Bragado. 13an.

EZKONTZAK

- Luis Moto Benitez & Ines Sanchez Valor. Azaroaren 7an. Elizaz.
- Jesus Mari Valgañon Gomez & M^a Karmen Urrutia Larrañaga. Azaroaren 14ean. Zibilez.
- Jesus Mari Mondragon Zubizarreta & M^a Begoña Galindo Bastardo. 14ean. Elizaz.

HILDAKOAK

- Salvador Blanco Perez. Azaroaren 11n. 55 urte.
- Aita Luis Arrieta Arregi. 13an. 84 urte.
- Juan Juaristi Epelde. 13an. 68 urte.
- Rosa Gomez. 16an. 80 urte.

BLUSAK OSAGARRIAK POLTSAK

XATHO

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

comercial san juan

hikein


MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4

Tfnoa: 79 13 84

Garibai, 12

Tfnoa: 79 13 05



JOXE ARANZABAL *

A-20 bluesa (Arrasateko Udala eta Brues S.A.)

Garai tristeak dira A-20 (Legarretik hasi eta errepidea eta erreka artean joanda, S. Isidro elizaraino) lur-saileko bizilagunentzat, gehienak urteetan sartutako jubilatua.

Arrasateko Udalak, Brues enpresa eraikitzailearekin batera, A-20 inguru industrial hori berrantolatu eta lehengo zerrategian industrialde bat egin nahi du.

Asmo horrek inguruko tailerrei eta Bruesi egingo die mesede. Zeintzuk izango dira, oster, bizilagunen irabaziak? Orain duten ikuspegi eragozteko lain izango den industrialdea eraikiko zaie, industrialde guztiek dituzten trafiko, zarata eta usainak ekarriko, Gipuzkoa Etorbideko errepidera pasatzeko berrogei urtetan erabi-

li duten pasabidea kenduko eta horrekin batera, pasabide horren lur-jabegoa, eta aurrekoa gutxi balitz, ordaindu egin beharko dute helburu industrial hutsak dituen urbanizazioa.

Xabier Zubizarreta alkateak hau auzotarren eta Bruesen arteko arazoa zela esan zuen ATBn eta Arrasateko Udala prest zegoela bitartekaritza lana egiteko. Zoritxarrez, auzi honetan

.....
“Besterik adierazi nahi badu ere, Udala Bruesen eskutik doa auzi honetan”

Arrasateko Udala inoiz ez da bitartekari izan. Bruesen eskutik joan da orain arte. Zergatik, bestela, 1977ko uztailearen 16an Hirigintza Batzordeak eta orduko alkateak 40, 42, 44, 46 eta 48. atarietako etxeak zona industrialetik atera eta zona urbano moduan berrizendatzeko gomendioa eman eta gero, 1985ean berriz ere zona industrialaren barruan sartzea? Lur horien erreparzelazioa amaitu barik dagoela, bestalde, eta legeak agintzen duenaren kontra, Arrasateko Udalak Txotxuene Berri eraikitze baimena eman zion Bruesi, oraindik ere legez 40 eta 42. atarietako auzotarrenak diren lurretan. Hori al da bitartekari baten egitekoa? Berbetan eman ditugun zortzi hilabete pasatxo hauetan, Jose Mari Loitik, Hirigintza batzordeburuak berba gozo eta samurrak izan ditu, baina lehengoetan dirau: auzotarrek ordaindu egin beharko dute (gutxitxoago, hori bai, faltaria plus) eta galdu egingo dute behin betiko pasabidearen eskubidea.

Bitartean Bruesek jo eta ke segitzen du Txotxuene Berri egiten, 40.eko zenbait auzotarren etxeetan sekulako itokian eta ur plastoia eragiten eta auzotarren eskariei entzungor egiten.

Administrazioa jubilatutako ikaratu batzuen kontra bihurtu zaigu kasu honetan. Zer irabazten du horrekin?

(*) MUSAKOLAKO A-20
AREAN JAIOA

USTEAK USTE

ELKARTASUNA BATZUREKIN BAKARRIK?

Bosniar taldeen etorrera oraindik modu egokian antolatu ez eiten arren, txalotzekoa da Deba Garaian hainbatek agertu duen borondate ona ume bosniarrak hartu edota atenditzeko. Laguntza beren herrian eskaini behar zaiela pentsaturik, badira herbestertze honen aurka azaldu direnak ere.

Bosniarrei horrenbeste begirune, eta hortik zehar sakabanatuta dauden ijito, hegoamerikar edota afrikarrak arrazakeriaren zantzuak jasaten. Azken hauek zuzeneko gerra baten ondorioak sufritzen ez dituzten arren, miseriaren, pobrezia-aren ateak gaindituta iristen dira Yugoslabiari eskainiko zaizkien atentzioak jaso gabe.

Bosniarrei egingo zaien abegi ona, ogi bila datozen magrebiarrei ere zabaltzea baino ez nuke eskatuko; jakina, gainerako giza talde behartsuak baztertu barik.

JON GARAI

LORATEGI taberna

Iturriotz, 7
Tfnoa: 79 04 67
ARRASATE

Berango



**Sukalde-
altzariak,
mahaiak eta
aulkiak.**


Erakusketa: Legarre pabiloia z/g. Gipuzkoa Etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

San Andres baserri-auzoan arazo berezirik ez

San Andres baserri-auzoa aurrerabideak zatitutako auzotzat har daiteke, alde batek saihesbidea eta San Joxepeko harrobia eta bestetik Lankide Aurrezkiko erakuntzen muntaia osoa. Egia esan, ez da erraza baserri-auzoa non hasi eta non amaitzen den esatea, laburki azaltzeko baserriak San Andres kale-azotik alde bietara zabaltzen direla esan daiteke. "Horrelako auzo desasterrik sekula ez juat ikusi" esan ei zion lagun batek Karmelo Errarte auzo-alkateari, eta beronek ere "Auzoa nolabait definitu beharra" dagoela aitortzen zuen.

San Andres baserri-auzoa definitzen hasteko, hemeretzi baserrik osatzen dutela aipatu behar da, guztira gutxi gorabehera laurogei lagunen bizileku. "Hemengo baserrietatik, baserri-baserria bakarra da, Muxibar. Gai-nontzekoak, nahiz eta gure ortuak, pinudiak eta ganadua izan, mixtoak gara; gehienok lantegietan ari gara eta".

Arazo berezirik ez zutela aitortzen zuen Karmelo Errartek, "Beharbada larriena Correos-etakoa izango da, kartak jasotzeko bakoitzak bere kabuz konpondu behar izaten du eta, kaleko taberna



Garai batean San Josepeko ermitatxoan burutzen ziren San Andreseko jaiak

edo dendaren baten uzten dizkigute; hala ere, badirudi orain hori konpondu egin behar dutela eta behealdean postakutxak jarriko dituzte laster. Zaborrarekin antzera samar gabiltza, bakoitzak ahal duena eginez, baina baserri gehienak errepide ondoan daudenez, zaborra kamioiari emateko aukera dute. Ura, berriz, baserri guztietara iristen zaigu, zenbait kasutan Urkulukoa ez izan arren. Azkenik, Bedoñara bidean dagoen baserri batetara izan

ezik, gainontzeko baserrietarako bideak asfaltatuta daude. Lokal bat ere eskatu diogu Udalari, eta erantzuna iritsi arte, orain arte moduan, kaleko auzo-alkatetzan biltzen jarraitu beharko dugu".

Ohitura zahar baten amaiera

Hasieran esandakoarekin argi samar geratzen da, San Andres baserri-auzoa guztiz sakabanatuta dagoela, baina garai batean, ez oso aspaldi, auzoak bazuen bere norta-

suna; auzoko jaietan isladatzen zena, batez ere. "Oraingo jaiak baserriarrentzat ez dute ezer, kaleko jendearentzat dira, baina mutikoa nintzeneko jaiak, orain hogeitamar urte gutxi gorabehera, zeharo desberdinak izaten ziren. Orduan auzo osoa San Joxepeko ermitatxoaren inguruan biltzen zen eta jai bertan egiten zen, giro jatorrean. Gero, harrobia martxan jarri zuten eta kitto, akabo San Joxepen egiten ziren jaiak".

BIONA

Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE

PAZI-OLA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94



Igandean, arratsaldeko 7etan konzentrazioa burutuko da Herriko Plazan, Senideak-ek deituta.

Senideak-en lehen urtemugan Zabarte berriz gose-greban

“*Senideak* sortzerakoan bi helburu nagusi ezarri ziren -zioen Edurne Iturbek Monterronen egindako prentsurrekoan-Elkartean, ideologi politikoaren gainetik eta giza-eskubideen defentsan, euskal preso, errefuxiatu eta deportatuen familiarrak sartzea eta gizarte-ari aipatutako giza-eskubideak ez direla betetzen jakinaraztea”. Urte betean, kalean ekintzak egiteaz gain, legezko elkarte bihurtu da *Senideak* eta preso eta familiarrek jasan-dako agresioez osatutako liburua kaleratu du.

Marijo Oregi bergararrak espetxeetako egoerari buruz hitz egin zuen, batez ere Salto del Negrori buruz, azken aldean arlo eta espetxe guztietako egoera gogortu egin dela esanez eta Salto del Negron bi gose-greba egin ondoren, Zuzendaritzak presoekin adostaturako akordioak bete ez dituenaz, erriz ekin diotela.

Azkenik, egin beharrekoak hitz egin zuen Juan Barrenak, “preso daudenak zigorra


bete behar dute, baina baita oinarrizko eskubideak ere, eta horrek bete egin behar dira. Gizarteari ahalik eta informazio zabalena emango diogu, bi hilabetean behin kaleratuko den “*Senideon ahotsa*” aldizkariaren bidez, triptikoak eginez, elkarte eta erakunde guztiekin egingo ditugun bileren bidez..., baina aurretik Salto del Negroko presoan aurtengo 3. gose-grebari irtenbidea aurkitu behar diogu, irtenbide azkarra, Jesus Mari Zabartek oinarrizko eskubideen defentsan ezin du 40 egunetako hirugarren gose-greba bat jasan eta. Gose-greba amaitu arte, egunero ordu-erdiko enkarteladak egingo dira Arrasaten, eta igande honetan arratsaldeko 7etan Herriko Plazan biltzeko deia luzatu dute. Jendeari ez diogu jarrera politiko bat hartzea eskatzen, uka ezinezko eskubide batzuk lortzeagatik mugitu dadila bakarrik, presoak pertsona moduan errespetatu ditazela bakarrik, ez gabiltza amnistia eskatzen”.

Umeei buruzko hitzaldi sorta

San Frantzisko Xabier Ikastolak eta Umezaintza Haur Eskolak 3 urtera bitarteko haurren gurasoentzat hitzaldi sorta bat antolatu du datorren aste-rako. Haur jaio berria duten edo haurra izan behar duten guraso bikoteentzak, familia horietan somatzen den hutsune bati erantzuteko asmoa dute: lehenengo haurra duten gurasoek batez ere izaten dituzte, beste mila zalantzari erantzuteko: umeari nola lagundu, nola eta noiz estimulatu, adin bakoitzean zer gertatzen zaion, adin bakoitzean normala zer den eta zer ez...

Ikastaro mota hau sei hilabetean behin burutzeko asmoa dago, eta bailarako edozeinentzat dago irekita. Azaroaren 23an hasi eta 26ra bitartean, Monterronen arratsaldeko 7etatik 8etara eta dohainik. Parte hartu nahi duenak 79 01 02 edo 79 61 04 telefonotara deituta eman dezake izena, Arantzas galdetuta.

Hizlariak Arantza Lejarraga, Umezaintzako zuzendaria eta Edurne Erauskin, S.F.X. Ikastolako zuzendaria izango dira; adin bakoitzaren ezaugarri nagusienak aztertuko dira hiru egunetan, eta jostailu eta ipuinei buruzko aholkuak emango gero. Bibliografia banatu, eta jendearen kezka ere jasoko dira hurrengo ekitaldi batzuetarako.



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak


Urbe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

ARRASATE

PRESS

HARPIDETZAK


77 05 65



Almeneko ikasle eta irakasleak janari eta garbiketa produktuak bildu eta paketetan bidali dituzte.

Hogei bosniar Eskoriatzara etorriko dira

Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz-Gatzako Udalek familia bosniarrak jasotzeko Eusko Jaurlaritzan aurkeztutako proiektua onartu egin da. Euskadira 60 bosniar etorriko dira eta horietatik 20 Eskoriatzara. Datorren 27 edo 28an helduko dira eta sei hilabete pasako dituzte gutxienez bertan. Proiektuan zehazten den bezala, Eskoriatzako San Viator etxean egongo dira eta inguruko herrietako hainbat zerbitzu ere euren esku izango dituzte.

Jendeak familia hauei laguntzeko jarri duen interesa ikusita, inguruko Udalek, Arrasatekoa barne, jendeak eman nahi dituen laguntzak koordinatzea erabaki dute. Bizilekua Eskoriatzan finkatuta izanik, beste Udalaek janaria, erropak, dirua, ekintzen antolaketa eta beste hainbat gauza koordinatuko dituzte.

Arrasaten ere jende asko izan da Udaletxetara hurbildu eta bera laguntza eskaini dutenak eta askok ume bat etxean jasotzeko eskaera ere luzatu du. Hala ere, familia osoak batera izatea da egokiena, eta hauxe da etor-

tzeko jartzen duten baldintzak. Laguntza ematen interesatuta dauden guztiak datorren astelehenean hilak 23, izango diren bilertara joan daitezke: Eskoriatzako Magisteritza Eskolan arratsaldeko 6etan eta Aretxabaletako Zeraian 7.30etan.

Ikastetxe batzutan ere laguntzeko prest azaldu dira eta kasu batzutan, Almenen bezala, janariak bildu eta paketetan Bosniara bidali dituzte. Almenen konkretuki, Gurutze Gorriko deialdi bati erantzunez, janariaren bilketa prozesua hasi zuten. Bertako ikasle eta irakasleek etxeetatik ekarritako janariak bildu eta paketetan jarri ondoren, Aretxabaleta eta Eskoriatzako Udalek jarritako furgoneta baten bidez bidali dituzte.

Bestalde Arrasateko San Viatorrek ere eskaini du bere laguntza plastikoak lortu eta bertara bidaltzeko SOS Balkanes kanpainaren barruan. Izan ere, negua dela eta milaka pertsona zahar, gazte eta ume hilko da. Hotza eta euriagatik babesteko plastiko be-rezi hauek beharrezkoak dira.

Hilerri berriko tasak

Zerbitzuengatik ordaindu behar diren tasen artean, Udal hilerrikoak, zaborraren bilketarekin batera, dira garrantzitsuenak. 4 hilobiko panteoi bategatik, titular bakarrekoa, erosteko orduan 900.000 PTA ordaindu behar dira, mantenimenduko 5.000 eta ehorzketa eskubi-deengatik 8.500; panteoia, titular bakar gabekoa bada, 10 urtetarako ehorzketagatik 37.000 PTA ordaindu beharko dira. Auzoetan hilobiratzeagatik, berriz, 12.000 PTA.

Joan den asteko tasei buruzko berriari zehaztasun txiki bat egin behar zaio, 1.000.000 bat baino gutxiago obrak egiterakoan ez zela tasarik ordaindu behar aipatzen zen, eta hori egia izanda, gaineratu behar da tasarik ez, baina obrari dagokion zerga ordaindu behar dela.

Arrasateko argazki-artxibategia bukatuta

409 argazkik osatzen dute ASAk Arrasateri buruz egin duen argazki-artxiboa. Argazkiek, 15x20ko formatokoak, zein egun eta ordutan ateratakoak diren, nola, nondik eta argazkian ikusten dena azaltzen duen fitxa teknikoa dute. Artxiboa informatizatuta dago. Lana ASA taldeko 11 argazkilariren artean egin dute.

ARTEA

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE



ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAL, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE



Santa Agedako jubilatuek urteko bazkaria izan zuten pasa den igandean. Jende asko bildu zen herriko sozidatean eta giro ezin hobea bertan.



Bost kirolzale arrasatear hauek Calahorran izan ziren tenisa txapelketa batean. AKEko tenisa taldekoak dira eta horien artean, *Jose Caballerok* lortu zuen banakako txapelketa lehen saria. Bina

nakako txapelketan berriz, *Fernando Aguriondo* eta *Jose Caballerok* irabazi zuten. Haez gain, *Carlos Hernandez*, *Ricardo Vitores*, *Leonardo Sanchez* eta *Enrike Zelaia* egon ziren.



Argazkian ikusten duzun azenarioak, 1.100 gramoko dituzte. Loro base-tzean jasotakoa da. San-rrian, *Mateo Iturbe* eta *Santamaña* k eta *Ana* txo daude, bestela...!

Josu Urrutia, Athletikeko jokalaria Arrasaten izan dugu aste honetan. Asteartean hitzaldi bat eman zuen Eskola Politeknikoan eta entzule asko hurbildu zitzaion; Athletik zaleak eta Errealeko zaleak ere bai.

UGARTE
Industri hornidurak
Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

Monte
taberna
Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak
Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

Argazkian ikusten duzuen sai arre (buitre leonado) honek ez du gehiago hegan egingo, hilda dago. Pilarikako zubian, Bedoñan aurkitu zen. Gutxi-gorabehera urtebete eta hiru kilo izango zituen. Ehiztariek kotoa zabalik dute, eta ematen du berdin diela espezie bat zein bestea akabatu, tiroak toki batean zein bestean bota. Espezie hau konkretuki babestuta dagopostako kartutxoak zituen gorputzean.



IZEN PROPIOAK

● **Alfonso Gorroñogotia**k, 68 urteko arrasatearrak, Sozial Ekonomiako "Txemi Cantera" saria irabazi du. Perito Industrial elektronikoa da eta Union Cerrajeran hasi zuen bere ibilera profesionala. Ondoren Ulgorren, Lankide Aurrezkian eta MCCn egin zuen lan eta gaur egun Euskadiko Kooperatiben Federazioko lehendakaria da.

● **Bea Jimenez**, 29 urteko arrasatearrak hirugarren postua lortu du Estatu mailan burututako eskaladako txapelketan. Hainbat froga pasatu ondoren, azkena Bartzelonan egin zen. Gaur egun, Arrasateko Correosen ari da lanean.



▶ **Pasa den astelehenan irausi zituen Portailoiko zuhaitzak. Udaletxeko langileek eta Parques y Jardines-ekoek burutu zuten lana eta hainbat ikusle ere izan zituzten aldamenean. Animoz ondo lagunduta, beraz.**

mokasin

Zapatak eta osagarriak

Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

BAZAR
TOKI ON


.....
**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**
.....

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

**Kirol
bakoitzerako
erantzun
bat**



**ARRASATE
KIROLAK**

Kontzeziño kalea, Tfnoa: 79 46 12
ARRASATE




ARGIA egutegia

ARRASATEN SALGAI

- Prensas saltokiak:
Portaloia, Balanzategi (Biteri)
eta Moreno (Izarra dorrea).
- AED, Hire liburudenda eta
Txitxinpe taberna.

**Egutegi aberats eta politena!
Ez galdu aukera!**

Futbito Txapelketa ZALDIBAREN



Txapelketa kirolaren bide bareetan azkenik

Joan den astean Zaldibarko antolatzaille taldeak hartutako erabakia-
ren inguruan denetarik entzun da,
adostasun osoa erakutsi duten
taldeetatik, amorru handiz hartu
dutenetaraino. Dena dela, erabakia
hor dago eta diruari ez zaio irtenbi-
derik emango abenduaren lehen
astean talde guztien bilera burutu
arte. Ondorioz, aurten arte normala
izan den bezala eta normala izan

behar duen bezala, kirolak hartu du
protagonismoa berriro ere.
Kirol aldetik, aspaldi ez bezalako
asteburu lasaia izan da. Zentzu
horretan, badirudi kiroltasuna,
elkartasuna, adiskidetasuna... nola
edo hala irabazi beharreko teoria-
ren gainetik izan direla. Aurreko
urteetako Zaldibarko Futbito
Txapelketako lehiakidetasunaren
izpiritu berpiztua?

Zarugalde kalean...

BRANKA taberna



Bodisca s.l.

Zeramikako pabimentu eta
gaineztaldurak

Otalora z/g. Zarugalde, 3 Tfnoa: 79 65 25 ARRASATE

Futbito Txapelketa

a

taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	7	6	1	0	60	13	13
ZULOAK	7	6	1	0	29	12	13
ARRASATE KIROLAK	7	5	1	1	31	17	11
AIZPUN BILA	7	5	0	2	29	19	10
DANOK LAGUN	7	4	2	1	21	16	10
LOS HEREDIA	7	4	1	2	32	13	9
SIBILIUS ROVER	7	4	1	2	23	13	9
BETRAYER	7	3	3	1	23	16	9
BUKANAK	7	4	1	2	26	22	9
URMAY B. KING	7	3	2	2	27	18	8
KAIXO LENIZ	7	3	1	3	25	30	7
ITT	7	2	0	5	25	23	4
DRAFT	7	2	0	5	21	37	4
WHISKERIA LINDE	7	2	0	5	22	40	4
DRINK TEAM	7	0	3	4	6	23	3
GARIBAO-7	7	1	0	6	13	37	2
RESAKAS	7	0	1	6	12	39	1
AMOZKIBAR II	7	0	0	7	7	44	0
GUZTIRA	126	54	18	54	432	432	126

b

taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MIKELOS	7	7	0	0	35	8	14
ZIZTI-ZAZTA	7	5	2	0	36	13	12
BIZKORRAK	7	5	1	1	16	11	11
DIEGO ANTONIO	7	5	1	1	35	17	11
JODO FLORO	7	4	2	1	24	18	10
MOTZ	7	4	1	2	29	34	9
ZULUS	7	4	0	3	27	23	8
LA BANDA	7	3	1	3	23	19	7
KAKAJAURI	7	2	3	2	17	17	7
ANBOTOSTE KT	7	3	1	3	19	22	7
GATZBAKUAK	7	2	3	2	16	23	7
PUBLICOOP	7	3	1	3	17	25	7
TRONKOTEAK	7	1	1	5	19	33	3
BAYERN PROMESAS	7	1	1	5	13	33	3
ATERPE KAFETEGIA	7	0	1	6	10	24	1
LAUTHERBRUNNEN	7	0	1	6	11	34	1
FOSFOROS	—	—	—	—	—	—	—
KAJOI-TABERNA	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	126	53	20	53	386	386	126

c

taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
NOSKI	7	7	0	0	34	8	14
TRIKITI	7	6	1	0	49	10	13
ADELAIDA-HAIZEA	7	5	1	1	43	8	11
ADOBE F. C.	7	5	0	2	34	11	10
LASO ARREGI	7	5	0	2	31	15	10
ARRASATE KRIST.	7	4	0	3	30	20	8
ALPARGATA TURBO	7	3	2	2	29	21	8
GURE LEKU	7	3	2	2	35	32	8
TXOKO TABERNA	7	4	0	3	22	22	8
AUF DEM KOFFER	7	3	1	3	19	23	7
NUEVO TAB.	7	2	2	3	26	27	6
NAVORROS	7	2	1	4	22	28	5
KRISKIBALDA	7	1	3	3	15	24	5
GANBELAS	7	2	1	4	14	23	5
ALLA KUIDAUS	7	1	1	5	11	39	3
SEGUROS ORBITA	7	1	0	6	18	42	2
ATXANTA KE TE...	7	1	0	6	12	51	2
BALEIKE	7	0	1	6	12	52	1
GUZTIRA	126	55	16	55	456	456	120

d

taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. IND. UGARTE	7	6	1	0	50	9	13
LEINTZ GARAGAR.	7	5	1	1	24	10	11
FOTO IMAGEN	7	5	1	1	33	15	11
MONTERREY TAB.	7	5	0	2	33	19	10
NOTXINGAN FLO.	7	3	3	1	34	18	9
LOS DIMY	7	3	3	1	39	22	9
KOXKAS	7	3	3	1	19	12	9
PEPELUS	7	3	3	1	29	17	9
POTROAK LORAT.	7	2	4	1	20	22	8
ZOTZ	7	3	1	3	22	33	7
SOKOAKOAK	7	3	0	4	27	25	6
SOLANO 7 MARES	7	3	0	4	27	25	6
UGYS	7	3	0	4	15	22	6
ARTZANKOS UDAL.	7	1	2	4	29	33	4
EZKINAKO HONTZAK	7	2	0	5	16	44	4
OLEEE!	7	1	1	5	18	56	3
BAYERN DE LEINTZ	7	0	1	6	12	47	1
ILUNA TABERNA	7	0	0	7	10	48	0
GUZTIRA	126	51	24	51	457	457	126



Ruth **GATZAGA**
Jatetxea

Laneko bazkariak
Lagunarteko askariak
Bikoteentzako afariak

Giro ona, sukalde ona eta
familiako tratua

GURE BEREZITASUNA:
SASOIAN SASOIKO
PERRETXIKOAK

Olarte kantoia, 3
Tfnoa: 79 59 57
ARRASTE



Iluntz eta
Iturriotz
tabernak
ARRASATE

BELARRIRA



Ez dago baloia begirutzen dutenen aurrean, baina badirudi une batetik bestera sartuko dela argazkian. Bada ez bada, jokalaria, erasotzaile, defentsa zein argazkiari begira daudenak, adi-adi, ea nondik agertzen den!

◆ **Abenduko zubian** ez da txapelketarik jokatuko. Asteburu horretan jende gehienak kanpora joateko ohitura duenez, antolatzaileek jai ematea pentsatu dute, taldeek arazorik izan ez dezaten.

◆ **Joan den asteburuan** inauguratu zen Zaldibarko argiteria artifizia, eta badirudi izugarritzko arrakasta izan duela, talde gehienek arratsaldeko betatik aurrera jokatzea eskatu dute behintzat. Dirudienez, iluntzeak eta Zaldibarko argiteriak jende ugari biltzen ditu. Antolatzaileek ahalegin guztiak egingo dituzte, talde guztiak iluntzeko orduetan jokatzeke aukera izan dezaten.

◆ **Dirua banatzearen** aurkako erabakia dela eta, antolatzaileek bilerarako deialdia egin behar dute. Oraindik ez dago egun finkorik, baina abenduaren lehen astean egin nahi litzateke.

EMAITZAK

A TALDEA

Drink Team 0	Sibilus Rover 2
Zuloak 5	Kaixo Leniz 1
Bukanak 6	Urmay B. K. 2
Betrayer 2	Amozkibar II 1
Argi Ibilu 12	Garibai-5 0
Draft 9	Whiskeria Linde 4
Resakas 0	Danok Lagun 2
Los Heredia 5	Aizpun Bila 1
Arrasate Kirolak 5	ITT 3

C TALDEA

Atxanta ke te... 0	Noski 7
Kriskibalda 3	Alpargata Turbo 3
Laso Arregi 10	Alla Kuidaus 0
Ganbelas 1	Arrasate Kristaldegia 10
Adelaida-Haizea 15	Baleike 0
Seguros Orbita 2	Txoko Taberna 4
Gure Leku 5	Nuevo Taberna 2
Trikiti 3	Nabarros 1
Adobe F. C. 2	Auf Dem Koffer 3

B TALDEA

Mikelos 7	Lautherbrunnen 0
Kakajauri 2	Tronkoteak 5
Aterpe Kafetegia 2	Gatzbakuak 2
Anbotoste K. T. 3	Motz 3
Zulus 6	Bizkorak 3
Diego Antonio 8	Bayern Promesas 2
Jodo Floro 3	La Banda 3

D TALDEA

Monterrey tab.3	Artzankos Udalaiz 2
Pepelus 2	Foto imagen 2
Uglys 0	Koxkas 4
Ezkiñako Hontzak 1	Sum. Ind. Ugarte 12
Zotz 0	Potroak Lorategi 0
Notxingan Florest 10	Iluna Taberna 0
Sokoakoak 5	Los Dimy 8
Bayern de Leintz 2	Oleee! 4
Leintz Garagar. 5	Solano 7 mares 2

Trikipublic

Kanpatorpea, 2 Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

- Publizitate kanpainak •
- Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioak •
- Zuzeneko publizitatea •
- Bideo produkzioa •

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 21

Zaldibar

- 08.45 Laso Arregi / Adobe
- 10.00 Motz / Gatzbakuak
- 11.00 Artzankos Udalaitez / Koxkas
- 12.00 Nabarros / Kriskibalda
- 13.00 Publicoop / Jodo Floro
- 14.00 Drink Team / Draft
- 15.00 Sibilius Rover / Urmay B. K.
- 16.00 Auf Dem Koffer / Baleike
- 17.00 Monterrey Taberna / Notxingan Flo.
- 18.00 Mikelos / Anbotoste K. T.
- 19.00 Foto Imagen / Sokoakoak

Iturripe A

- 13.00 Aizpun Bila / Kaixo Leniz
- 14.00 Los Heredia / Garibai-5
- 15.00 Bayern Promesas / Tronkoteak
- 16.00 Atxanta ke te... / Seguros Orbita
- 17.00 Ezkiñako Hontzak / Los Dimy

Iturripe B

- 11.00 Bayern de Leniz / Zotz
- 12.00 Bukanak / Arrasate Kirolak
- 13.00 ITT / Argi Ibili
- 14.00 Aterpe Kafetegia / Bijkorak
- 15.00 Diego Antonio / Zizti-zazta
- 16.00 Alpagata Turbo / Gure Leku
- 17.00 Uglys / Leintz Garagardotegia

Igandea 22

Zaldibar

- 08.45 Amozkibar II / Whiskeria Linde
- 10.00 Noski / Alla Kuidaus
- 11.00 Trikiti / Adelaida Haizea
- 12.00 Kakajauri / Zulus
- 13.00 Ganbelas / Nuevo taberna


Iturripe A

- 09.45 Zuloak / Resakas
- 11.00 Oleee! / Pepelus
- 12.00 Txoko Taberna / Arrasate Kristaldegia

Iturripe B

- 09.45 Betrayer / Danok Lagun
- 11.00 Iluna Taberna / Sum. Ind. Ugarte
- 12.00 Solano 7 mares / Potroak Lorategi

NON DAGO BALOIA?



Datorren astean egingo dugu sariaren zozketa, 20.000 PTA kirol-materialean Arrasate Kirolak; beraz, oraindik parte hartu ez duenak badu aukerarik, behean dagoen txarteltxoan moztu eta ahalik eta azkarren bidali edo ekarri ARRASATE PRESSERA zozketan sartzeko. Aprobetxa azken aukera, benetan paregabea da eta.



5. astea

Non dago baloia?

- Erantzuna
- Izena
- Tfnoa

Trikiti

S. L.

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56

● *Angel Carcoba*

Lan-munduan osasunaz arduratuta

Angel Carcoba, CCOO-eko Lan Mundurako Osasun saileko burua da Estatuan. Arrasaten izan zen, kooperatibak ezagutzeko asmoz. Kooperatibak ikusteaz gain, Madrilen bizi den kantabriarrak "Osasun hiritarra eta langileak" hitzaldia eman zuen.

— Zein da lantegien egoera osasun mailan?

— Lan-baldintzak gero eta okerragoak dira. Milaka langile, eguneroko ogia ateratzearen, osasuna —eta zentzibait kasutan bizitza— galtzen ari dira. Moral aldetik bakarririk hartuta, ez da zuzena; produktibitatea nagusitu da, elkartasuna eta lan-baldintzak hobetu beharrean.

PSOEK ezarritako lan-harremanen sisteman, langileek osasun eskubideak lortzeko borrokatu behar dute. Felipe Gonzalezek bere TBO-an aipatzea ahaztu duen gauza bat adierazi nahi nuke, sozialistek boterean bete duten hamarkadan 12.000.000 lan-istripu gertatu direla, eta horren ondorioz 130.000 elbarritu eta 15.000 hildako.

— Zer jarrera dute enpresariak osasun gaiekiko?

— Enpresariak, oroko-

rrean, ez dute legea betetzen eta ez dute ordaintzen ezarritako zigorrak. Iaz, lantegi-inspekzioak 24.800 akta jaso zituen eta lau mila milioitako zigorrak ezarri; ez ziren ordaindu, jakina. Patronalaren jarrera axolagabea da.

— Langileek gai horietan kontzientziarik badute?

— Tortilari ezin zaio buelta eman eta errugabea errudun bihurtu. Langabeziaren errua ez da langabetuarena, HIESaren errua ez da HIESa duenarena, drogazalea ez da drogaren arazoaren erruduna.... Lan baldintza, arrisku, hartu beharreko neurrien inguruan etab. formazio eta informazio lan handia egin behar da, baina erruduna sistema da, lan-harremanak horrela ezarri dituen sistema.

— Eta sindikatuek noiz egingo dute lan hori?

— Egiten dena ez da sekula nahiko izango. Informazio, formazio eta sentsibilizazioan ahaleginak egiten ari gara, ikastaroak egin, kartelak, triptikoak etab. zabaltzen ari gara, langileek euren osasuna babes dezaten.

— Segurtasun Soziala?

— Egoera zaila da. Langilegoaren zati handi batek



ahopeko ekonomian lan egitea beste erremediorik ez duenean, lantegietatik kanpora doanean, Estatuak Segurtasun Soziala sektore pribatura eramaten du, eta orduan osasuna norberak duenerosteko gaitasunaren menpe geratzen da, desberdintasuna instituzionalizatuz. Pobreei, konbergentzia planaren ondorioz "benefizentzia publikoa" geldituko zaie.

— Lana osasuna da?

— Lana, ihardutea, denbora antolatzea, ona da osasunarentzat; horren aurrean lanik ez dutenen alternatiba dago, ohetik jaikitzeak arrazoirik ez izatea. Langabeziaren gaisotasunak sortzen dira hortik, gaisotasun gogorak, ez dute eta langilearengan bakarrik eragiten, kolek-

tibo osoan baizik.

— Absentismoaz, grebez... asko hitz egiten da

— Enpresarien propagandarekin bukatu egin behar da, batez ere huelga eta grebetan European lehenak gareladiotenean, zerbaitetan lehenengo baikaude lan-istripuetan: Euskadin iaz lan-istripuz edo gaixotasunez 1.571.408 jornada galdu ziren, greben eraginez, berriz, 267.200.

Ekonomia Elkarteko herrialdeen batz besteko lan-istripu kopuruarekin konparatuta, Espainiak 14 bider gehiago dauzka. Ingalaterran iaz, 29.000.000 langile zeuden, 430 pertsona hil ziren lan-istripuz; hemen, 12.500.000 langile ginen eta lan-istripuz 1946 hil. Datuek ez dute azalpenik behar.

— Hobera ala txarrera egingo dugu?

— Konbergentzia plana onartzen bada, okerrera, bizi kalitatea eta lan-baldintzak txartu egingo dira eta.

● **"European zerbaitetan lehenak bagara, lan-istripu eta gaixotasunetan gara, ez lanuzte eta grebetan"**



Psikologo bi eta pedagogo batek lan egiten dute Arrasateko Zentro Psikopedagogikoan

Umetako arazo handien konpontzaile

Beñardo Kortabarria

Zentru Psikopedagogikoa martxan jarri zenetik, hamabost urte pasa dira. Denbora horretan, gaur egun gazte diren makina bat ume arrasatear, Ignazio Zuloaga kaleko hamargarren zenbakiko bezero izan da. Ume horiek eta euren gurasoek, egunero joan beharrak ematen duen jakinduriaz, ondo dakite zer aurki daitekeen Zentru psikopedagogikoan, baina gainontzekoontzat arrotz samarra da.

Nolabait, modu labur batean esanda, Zentru Psiko-

dagogikoan arazo fisiko zein psikikoak dituzten umei, irakasleek eskolan egin dezaketenaz gain, atentzio eta laguntza berezia ematen zaie. Itziar, Edurne eta Kontxik, bi psikologo eta pedagogo batek, umeen ordutegira egokitutako lana egiten dute goiz eta arratsaldez aste osoan zehar. "Gu egun osoan egoten gara hemen, baina umeak astean bi aldiz etortzen dira, ordubete pasatxo astero. Goizeko 9.30etan hasten gara, eguerdiko 1.30ak arte eta arratsaldez, berriz, 4etatik aurrera. Hemengo lanaren ezaugarriak kontuan hartuta, umearekin lan egiteaz gain, guraso eta irakasleekin harreman onak eta estuak izan behar ditugu".

U

mearekin lan egiteaz gain, guraso eta irakasleekin harreman onak eta estuak izan behar ditugu"

LANA ZEHAZTUZ

Urtebetera iristen ez diren umeekin hasten dira lanean Zentru Psikopedagogikoan. "6 urtera arteko umeekin egiten den lanari estimulazio goiztiarra deitzen diogu. Fisikoki edo psikikoki atzeratutako umeen trebetasunak lantzen saiatzen gara, ahalik eta gehien gara ditzaten, lehenik bakarrean, gero kolektiboan, integratzeko arazorik izan ez dezaten. Down sindromea, burmuineko paralisia eta antzerako arazoak dituzten umei laguntzen ahalegintzen gara, eta gezurra badirodi ere lan handia egin daiteke horrelako jendearekin, izugarri aurreratzen dute.

Estimulazio goiztiarraz aparte, errehabilitazio fun-

tzionala lantzen dugu: hizkeraren psikomotrizitatea eta hezkuntza, ezkerre eta esku- ma bereizteko arazoak dituzten umeen kasuak, hitz egiteko orduan sortzen diren akatsak, gaizki ahoskatzen duten umeenak, ohean pixa egiten dutenenak... Aipatutakoak arazo fisikoak dira, baina oinarrian arazo psikikoak egoten dira, etxean edo eskolan gertatzen ari den zerbait gehienetan, horregatik garrantzi handia dauka harreman estuak izatea bai gurasoekin eta baita irakasleekin ere". Alde horretatik, gurasoek eta irakasleek dagokien ardura betetzeko normalean oso jarrera ona izaten dutela aipatzen zuten Zentru Psikopedagogikoan lan egiten duten hiru emakumeek, "gero eta zabalagoa; gainera, askotan lan handia egin beharra dago gurasoekin ere. Batzuk ez dute garbi ikusten nolako semea edo alaba daukaten; nolakoa izan nahi luketen izaten dute buruan, errealitatea onartu barik. Umeen arazorik handien oinarria bikotean eta umea bizi den inguruan dago".

HARREMANETAN JARTZEKO

Umeen arazoei ahalik eta irtenbide azkarrena eman behar zaiela zioten Itziar, Edurne eta Kontxik eta baliteke Arrasaten edo inguruetak herrietan dagoen norbaitek Zentru Psikopedagogikoare-



Hizkeraren arazok konpontzeko saioetan.

kin harremanetan jarri nahi izatea. Lehen kontakturako telefonoz egindako dei bat nahikoa izaten da, 79 48 77 telefonora deituta. Dei horrekin, lehen aurrez-aurreko elkarrizketarako txanda hartuko da, umea, gurasoak eta Zentruko norbait egongo dira bertan. Elkarrizketan zehar, froga batzuren bidez umeak duen arazoaren diagnostia egiten da; diagnostia egin eta gero, gurasoekin hitz egiten da, arazoa lantzeko plana egin

eta arazoa lantzen hasi, beti ere umearen ikastetxearekin lotuta.

Arazoari irtenbidea emateko, berriz, ez dago epe jakinik, arazoaren larritasunak, umearen azkartasunak, lanaren errendimenduak... eta antzerako faktoreek eragin handia dute horretan; jakinek gauza bakarra dago; umeak izan dezakeen akats edo arazoari zenbat eta lehenago irkonponbidea, irtenbidea bera azkarrago irits daitezkeela eta hobeto landu daitezkeela umearen trebetasunak.

PUBLIKOTASUNETIK PRIBATURA

Normala denez, arlo pedagogikoko funtzionamendua gauza bat da, eta ekonomikoa beste bat. Arlo honetan, Zentroaren 15 urteak ez dira alperrik pasatu, eta gaur egun, orain hamabost urte ez bezalako funtzionamendua dauka. "Zentru Psikopedagogikoa 1977an ireki zen. Orduan, Mankomunitateak sortutako zerbitzua zen, bailadako herri guztietan sortu zena. Diru arazoak egon ziren, zailtasunak, komisioak izendatu ziren... jendea erre eta gehienak itxi ziren arte. Munizipalizatuta Oñatiko Zentrua bakarrik geratu zen zabalik.

Gure kasuan, 1979an pribatizatu beharra izan genuen, edo erdi-pribatizatu hobeto esanda, dirurik ez zuen zenbait jenderi ez diogu ezer kobratu eta. Arazo handi batekin, laguntza eske datozen gurasoei ezin zaie ezezkorik eman, nahiz eta dirurik ez izan, oso zaila da hori. Mankomunitatean geundenean, soldata aldetik eta hobeto geunden, baina norberak aurkitu behar zuen irtenbidea eta pribatizatzeari besterik ez zitzaigun geratzen". Era batera edo bestera, horrelako zerbitzuen beharra ez da dudan jartzekoa, txikitako arazoak askotan adinarekin hazten joan ez daitezzen.

Zergatik desagertu ziren Mankomunitateko zentruak?

Mankomunitateko oraingo arduradunak paper zaharretan aurkitutakoaren arabera, zentru psikopedagogikoak martxan ei zeuden 1977a aurretik. Urte hartan, Mankomunitatearen babesarekin baina Udal bakoitzaren ardurapean, bailarako zentruak zerbitzu kooperatiba moduan antolatuko ziren. 1979. urtea, Bergarako Udalaren dimisioa, lehen hauteskunde demokratikoak... ondorioz Mankomunitatea erdigeldirik, eta berriz antolatu zenean ez zen gaiaz gehiago hitz egin, behintzat ez omen da aktetan gehiago aipatzen.

A

razoak dituzten umeak ahalik eta azkarren hartu behar dira, lehenbaitlehen konpontzeko"

Aurrebeisboleko Monitoretarako ikastaroa

Deba Garaiko Udaletxe-tako Kirol Zerbitzuek antolatuta, prestakuntza fisikoa eta aurrebeisbolari buruzko bi ikastaro egiteko aukera izango da.

Aurrebeisbol Monitore izateko ikastaroa, Oñatiko Zubikoa kiroldegian burutuko da, abenduaren 19 eta 20an, goizez eta arratsalde larunbatean eta goizez bakarrik igandean. Aurrebeisbol ikastarora joateko 14 urte izatea beste baldintzarik ez da bete behar. Matrikula 2.000 PTAkoa izango da Deba Garaiko Kirol Zerbitzue-tako bazkideentzat eta 500 PTA gehiago bazkide ez direnentzat.

Prestakuntza fisikoko ikastaroa, berriz, Bergarako Kultur Etxean egingo da, eta entrenadore, monitorea, irakasle eta orokorrean kirolarietara zuzenduko zaie. Ikastaroa azaroaren 27 eta 28an burutuko

da, ostiralean arratsaldeko 6etatik 9etara, eta larunbatean goizeko 9etatik 1etara eta arratsaldeko 3etatik 6etara. Deba Garaiko edozein Kirol Zerbitzuko bazkideek 1.000 PTA ordaindu

beharko dituzte ikastaroan parte hartzeagatik, eta gaintzekoek 1.500. Prestakuntza fisikoko ikastaro hau, Heziketa Fisikoan lizentziatutako irakasleek emango dute, eta garrantzizkoa izan daiteke ikastaroa euskaraz emango dela esatea.

Ikastaro batean zein beste parte hartzea nahi izanez gero, izen ematea norberaren herrian egin beharko da, Arrasateko kasuan Musakolako kiroldegian, ikastaroak hasi baino hiru egun lehenago gutxienez.



LABURRAK

Arrasatear gehiago Behobia-Donostian

Joan den astean, Behobia-Donostia lasterketan parte hartu eta bukatutako 44 arrasatearren berri eman genuen, baina gehiago ere badira hori lortutakoak. Arrasateko bi lagunek egunkari-tik ateratako zerrenda erabili genuen, beranduago Club Deportivo Fortuna taldeak egingutako iritsi zen; hala ere, batean daudenak ez dira bestean agertzen eta alderantziz. Biak konparatuta, sei izen berri eman ditzakegu, baina baliteke gehiago ere izatea:

Jose Mari Lopez	1.25.23
Iñaki Gonzalez	1.28.33
Pazka Murillo	1.40.25
Juan Angel Arregi ...	1.40.33
Jose Luis Cascon ...	1.44.41
Juan Mari Uzkudun ..	2.09.08

Gipuzkoako Txapelketarako markak

Joan den asteburuan Arrasate Atletiko Taldeko atleta talde batek Anoetan burututako frogetan, Gipuzkoako Txapelketarako beharrezko gutxieneko markak lortu zituen: Alex eta Gabi Saavedrak 800 metroan 2 minutuko markarekin eta Jokin Diaz de Lezamak altuerako jauzian, metro bat eta 80 zentimetrotako markarekin. Amaia Ramos, Josserra Petreñas, Manu Anguas, Martin Davila eta Urko Bediak ez zuten eskatutako markarik lortu, baina oso gertu ibili ziren. Asteburu honetan, Gipuzkoako Txapelketarako baliagarri diren markak lortzeko beste saio bat egingo da Anoetan, eta arrasatearrak han izango dira.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABAETA



UXARTE

Kafetegia,
gozotegia
Gauetz irekita!!
JO TA KE!!

Bañez doktorea, 12
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

“PAL”


burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

PENALTIAK

● **Enrike Kabiketa korrikalari beteranoak normalean hemen inguruan burutzen diren proba guztietan hartzen du parte, baina aurten ez. Dirudenez arrasatearren asmoa, beterano mailako Munduko Atletismo Txapelketarako pasea lortzea da, eta aurtengo entrenamendu guztiak helburu horri begira bideratu ditu.**

● **Larunbat honetan Arrasate Rugby Taldeak konpromezu serioa dauka Getxoren aurka, baina serioagoa dauka Josu Ezkuria rugby taldeko jokalaria. "Bere urtebetetzea da, eta lagunei tragu bat behintzat ordain diezaiela" zioen taldekide batek.**




Gipuzkoako Club-en arteko Txapelketan denetarik

Arrasateko taldea nahiko lan ona egiten ari da Gipuzkoako Club-en arteko Txapelketan. Orain arte, ez du ihardunaldi bateko partidu guztiak irabazterik lortu, baina ezta galdu ere. Beharbada, orain arteko lanik zailena erramintako modalitatean izan dute, baina azken aldean palaz aritzen diren pilotariek euren jokua hobetu dute eta emaitzak hobetuz joan dira. Azkena, joan den asteburuan eta Aretxabaletaren aurka jokaturako partiduetan arrasatearrak irabazle. Eskuz, berriz, umeak eta gazteak ondo, nagusiak ez hainbeste.

Anoetan lortutako markak onak dira?

Kontuan hartuta denboraldi hasieran gaudela, ez daude gaizki. Denboraldia aurrera joan ahala hobetuko dira, atleta gehienek marka hobekak dituzte eta.



FERNANDO ZUFIRIA, Arrasate Atletiko Taldeko arduraduna

EMAITZAK

Pilota

Gipuzkoako liga:
Alebinak: Eskoriatza 18 - Arrasate 16
Infantilak: Eskoriatza 4 - Arrasate 18
Kadeteak: Eskoriatza 10 - Arrasate 18
Jubenilak: Ezkuz-esku: Antzuola 11 - Arrasate 18
Bikoteka: Antzuola 22 - Arrasate 11
Nagusiak: Ezkuz-esku: Eibar 18 - Arrasate 5
Bikoteka: Eibar 22 - Arrasate 17
Paletaz: Arrasate 35 - Aretxabaleta 19
Pala motzez: Arrasate 40 - Aretxabaleta 36
Hurrengo partiduak:
Nagusiak, Iturripen larunbatean 11etan, Bergararen aurka.
Palakoak: Musakolan larunbatean 11.30etan, Idizabalen aurka.

Saskibaloia

Seniorrak: Caja Bilbao 71 - Arrasate 74
Emakumezko Seniorrak: Arrasate 87 - Lestonnac 52
Juniorrak: Zarautz 83 - Arrasate 66
Jubenilak: Gizonezkoak, Atletico S. S. 62 - Arrasate A 49
Arrasate B 45 - Zahor 93
Emakumezkoak: Arrasate A 43 - Juven A 119

Kadeteak: Gizonezkoak, Aldapeta 70 - Arrasate A 48
Arrasate B 44 - Ikastola Urtek 92
Emakumezkoak: Etxadi B 46 - Arrasate A 44
Arrasate B 31 - Eskoriatza 44

Hurrengo partiduak

Juniorrak: Arrasate - Bosteko, igandea 12.00
Jubenilak: Arrasate A - Loiola A, larunbata 16.00
Kadeteak: Gizonezkoak: Arrasate A - Amigos Balances-to A, larunbata 12.00
Emakumezkoak: Arrasate A - Almen, San Viatorren, igandea 10.00

Rugbya

Kadeteak: Hernani 8 - Arrasate 0
Hurrengo partiduak
Seniorrak: Arrasate - Getxo, larunbata 16.00

Eskubaloia

Kadeteak: Arrasate 13 - Aloña Mendi 25
Jubenilak: Arrasate 9 - Urola 16
Juniorrak: Usurbil 26 - Arrasate 17
Seniorrak: Aloña Mendi 18 - Arrasate 16
Hurrengo partiduak
Juniorrak: Iturripe, larunbata 16.30 Urolaren aurka.

Seniorrak: Iturripe, larunbata 18.00 Donostiako Carmeloren aurka.

Futbola

3. maila: Mondra 2 - Aurrera 0
Preferentea: San Andres 3 - Alipendi 0
Emakumezkoak: Mondra 2 - Anaitasuna 5
Jubenilak:
Ohorezko liga, Mondra 0 - Sto. Tomas Lizeoa 1
Lehen maila, San Andres 3 - Vitoria 3
Bigarren maila, Soraluze 3 - Arrasate 3
Kadeteak:
Lehen maila, Anaitasuna 6 - Arrasate 2
Bigarren maila, Arrasate 3 - Soraluze 0
Umeak:
UDA 1 - Arrasate 5
Hurrengo partiduak
Bigarren mailako jubenilak: Arrasate - Bergara, larunbata 15.30.
Lehen mailako kadeteak: Arrasate - Aitzgorri, larunbata 11.30.
Haurrak:
Arrasate - Ordizia, larunbata 10.00.
Arrasate - Soraluze, larunbata 11.00.

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

GIZON ETA EMAKUMEAREN MODA
zortzi
Otalora z/g Tfnoa: 79 20 50 ARRASATE

SALBERRI
HARATEGIA-URDAITEGIA
Azoka Plaza, 22.postua
Tfnoa: 79 12 09 ARRASATE

Azterkosta

Urriaren azkenengo astean Europako Kostaldea aztertua izan zen Azterkosta-Coastwatch-proiektuan.

Euskadiko kosta ere aztertua izan zen eta lan horretan San Viator Ikastolak parte hartu zuen, batxiler zientifikoko 1. urtean diharduten 72 ikasleekin.

Ikertzeko genuen kostalde zatia Mutriku herriari dago-kiona zen, hau da, Hondarbel-tz-etik Saturraraneraino hain zuzen ere.

Lan horretan EHU-tik bidalitako inkesta bat bete behar genuen, eta arlo desberdin batzuk ikutzen ziren, hala nola:

Kostaldearen ingurunearen ezaugarriak, litoralean egon zitezkeen hondakin solidoak, aurkitzen ziren izaki bizidunak eta hauen egoera,

bertaraino heltzen ziren korronte nagusietan nitrato-ma-ila eta bakterio fekalen presen-tzia. Aldi berean Mutrikuko Udaletxean ere izan ginen zona horretako etorkizunari buruz galdetzen.

Horrela, arriskurik gabe-ko 7 puntutan burutu genuen lana. Ezaugarri desberdine-tako zonak aukeratzeak, euren arteko konparaketak egiteko aukera eman zuen.

Lortu ditugun emaitzak eta ondorioak honako hauek dira:

Deba eta Saturraranen itsasoratan diren ibaietan eta baita Mutrikuko portuan bakterio fekalen analisiak po-sitiboa eman zuen, ur fekalak bertaraino heltzen direla adierazten duena. Gizakiok sortzen ditugun ezin besteko ur fekalak (estolderia) hainbat

kasutan industrietatik dato-rrena baino kutsagarriagoa dira.

Aurkitu genituen hondakin solidoetan oso nabarmen-ak ziren azkenengo euritee-kin ibaiek garraiatutako zu-haitz-adarrak eta neurri handi batetan ere guk gizakiok ure-tara edota kalera botatzen di-tugun zakarrak: plastikozko-poltsak, sokak, botak, neuma-tikoak, edari-latak..., urak deskonposatzen ez dituen hondakinak.

Honetaz, gain, Hondar-beltzan eta Mutrikuko portua-ren inguruan olio lohidurak ur gainean oso ugariak ziren.

Garbi ikusi genuen kutsadura horrek aberastasun eta deibertsitate biologikoa gutxitzen duela, leku hauetan zenbatzen genituen algak eta

animaliak besteetan baino as-koz gutxiago ziren eta.

Honekin jarraituz, Pitzarri aldean eta itsas-labarraren gainean kontrolik gabeko za-bortegi bat aurkitu genuen, zakarpoltsak, telebista zaha-rrak, kondoiak... bertan zeu-delarik.

Gure ustez, bai horrelako zabortegi eta bai hondartzetan ikusten ziren hondakinen des-agerketa oso erraza izango li-tzateke gure gizartean kon-tzientzia apur bat piztuz gero, horrek azken batean kultur-maila adierazten du eta.

“Ez begiratu besteek kuts-atzen dutena bakarrik, zuk, zeuk ere kutsatzen duzu”

**SAN VIATOR IKASTOLAKO
NATUR ZIENTZIAK
DEPARTAMENDUA**



LORAMENDI KIROLAK

Eski TECNOprou B-50 eskiak 12.500
SALOMON 577 hijazioa 9.900
TECNOpro Powder bostaia 1.850
GUZTIRA 24.250

HIRURAK: 18.950



DYNASTAR Dynasoft eskiak 17.900
SALOMON 577 hijazioa 9.900
TECNOpro Triangle bostaia 2.100
GUZTIRA 29.900

HIRURAK: 24.900



ROSIGNOL 3HP eskiak 16.500
SALOMON Quadrox 5 11.590
TECNOpro Triangle 2.100
GUZTIRA 29.190

HIRURAK: 21.900



KASTLE Argon-650 eskiak 21.500
SALOMON 577 hijazioa 9.900
TECNOpro Powder bostaia 1.850
GUZTIRA 33.250

HIRURAK: 25.900





Frantzia baino merkeagoa LORAMENDI dago
Prestatu zure ekipoa gure tailerretan

ZATOZ ETA SONY BAT BAINO HOBEA DEN ZERBAIT ESKURATUKO DUZU: BI



►► Orain, *Jose Aranzabal* era etorri eta Sony bat erosten baduzu, beste bat eramango duzu opari.

►► Ez utzi pasatzen aukera bikain hau eta zatoz azaroaren 30a baino lehen. ►► Badakizu zer opari daukazu, Sony bat baino hobea: BI.►►



Jose Aranzabal

ITURRIOTZ, 15 Tfnoa: 79 15 16 ARRASATE

SONY
BANATZAILE
OFIZIALA
1992

Pasadizoak (1)

■ KRIXIS SAKRISTAUA

Eugenio Sakristaua oso ezaguna ei zen Mondragoen, "Krixis" ezizenez ezagunagoa. Nonbait berritsu samarra ere bazen, eta behin, On Lorenzo Oruerekin sakristian zegoela, apustua egin zuten biek. Berari berba eragin baietz egiten zion On Lorentzok, baina Eugeniok berak esandakoa egiten zuen bitartean. 5 PTA jokatu zituzten, garai hartan egun bateko jomala edo.

Sakristiaren punta batetik bestera ibiltzea agindu zion On Lorentzok, burua makurtuta eta "hemendik hara eta handik hona" errepikatuz ordu laurdenez. Apustua hasi zenean, "Krixesa" ren bila, Krixisen emaztearen bila joan zen apaizori, Eugenioren zeozer arraroa gertatzen zitzaioela, sakristian hara eta hona zebilela marmoxeta baten eta aguro etortzeko esanez.

Andreak, joan eta senarra hala ikusi zuenean, aurrean jarri eta esaten ei zion: "Baina Eugenio, zer pasetan jatzu, Eugenio, Jaungoikuen izenien" ia bere gainean, ibiltzen ere uzten ez ziola eta On Lorenzo barrez lertzen begira. Halako batean, Eugeniok haserre: "Kakazaharra! bost pezeta galdu erain dustan! Kendu hakit bistatik, heugaitik galdu jonat eta bost pezeta!" On Lorenzo ez ei zion gero kobratu.

■ MEDIKU GAZTEA ETA ZAHARRA

Herri baten mediku bi ei zueden, bata gaztea eta bestea zaharra. Behin agure zahartxo bat gaixotu eta mediku gazteari dei egiten zioten.

"Batez ere, koñakik bat ere ez" esan zien familiakoi mediku jaun horrek, eta gure agureari edari hori asko gustatzen.

Gaixoak txarrera egin zuenez, mediku zaharra ekarri zuten. "Pozoina" jartzen zuen botilatxo bat ekarri zuen medikuak eta honela esan zien etxekoei:

—Bi ordutik behin busti trapu bat likido honetan eta ipiniozue bekokian. Baina busti busti eginda gero".

Pozoinorren tantakak bekokian behera jausten zitzaizkion gaixoari ahorraino, eta honela esaten ei zuen agureak ezpainak mehaztuz:

—Ipini pozoin gehiago, busti ondo.

Eta berehalakoan sendatu zen agurea. Mediku zaharrak bakarrik zekien botilatxo hartan koñaka zegoela. Bazekien eguzkia ere, eta bizitzako gauza guztiak, onak edo txarrak izan daitezkeela, kantitatearen arabera.



SUTONDOAN

KAXINTO ETA NARTZO (III)

San eta egin, kokor-dunak esan bezala, denbora asko baino lehen izugarriko deabrueriak ikasi zituzten. Baina gauza harrigarria: ikastola hartan ez zen agiri ez erlojurik ez egutegirik, eta horregatik ez zekiten San Juan eta San Tomas noiz zirenik ere eta hori baino kezagarriago oraindik, gosetu eta loguretu ere ez ziren egiten.

Orduan oroitu ziren Leundan Mikolasekin erabakitako itunbenaz eta beldurtzen hasi ziren. Galdetu zieten, beste ikasle batzueri ia inor etzan gosetzen edo loguretzen eta ezetz erantzun zieten. Gure mutilok geroago eta gehiago beldurtzen hasi ziren, eta hango "maixuak" entretenimendu txikienean aurkitzen ziren bezain laster, handik hankak jasotzea erabaki zuten.

Halako batean, Mada-ripeko bera bakarrik eta lo antzean aurkitzen zela ohartu ziren eta Kaxinto eta Nartzok, elkarri kiñu egin ondoren, "ene hankak, egizue arin" esanez, hartzuloko atera abiatu ziren. Baina kanpoko eguzkiaren argia euren itzala barrurantz botatzen hasi zen une berean, Mikolasek esnaturik, deiadar ikaragarri bat egin zien esanez:

— Mutilak, nora zoazte?

— Geuk nahi dugun tokira.

— Baina zuen arimak hemen utzita, tratua egin genuen bezala.

— Hori bai, gizona, hor dituzu biak.

ARREGI TAR TIBURTZIO

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

FELIPE MADINA
ZURAK
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

aitzgorri
LARRU eta LARRUKIAK
Salvatierrako larrukiak
60km.tako beharapenarekin.
Maalako Errabala, 7 Tfnoa: 76 06 36 ARRASATE



Berasaluze-Izurategi familia.

L

tagonistak ez dira mondragoetarrak, baina batzuk behintzat bertan bizi dira orain. Eskoriatzako Gastainui auzoko Boliña baserrikoak dira, eta joan zen astean aldizkarian atera genituen andre gizonak, urrezko eztaiak ospatu zituztelako. **Karmen Izurategi** eta **Felix Berasaluze** dira, andrea Bolibarko Errotakoa eta gizona, berriz, orain bizi diren baserriko bertako semea, Boliñakoa.

Orain 35-36 urte atera

zuten erretratu hau, familia ugariaren titulua ateratzeko beharrezkoa zelako, etxeko ortuan bertan, domeketako erropekin.

Senar emazteen inguruan, ezkerretik hasita, **Mari Karmen**, orain Gasteizen bizi dena, **Joxe Mari, Felix** eta **Iñaki**, Kobate Kantarako enkargatua. Amaren altzoan **Prudentzio**, etxeko txikia, urtebete ingururekin eta aitarekin **Asentzio**, erretraturik atera nahi ez eta burua makurtuta.

enbat eta zenbat ote dira era honetako familia-argazkiak! Etxe bakoitzean dozena erdi seguru. Aste honetako pro-



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
Iarruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

JOSTEKO

OIHALAK

Errekabarren, 20
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 80 90

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK



77 05 65

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- Etxebizitza berria salgai Zarugalden. Tfnoa: (945) 25 89 03.
- Eskoriatzan etxebizitza batean logela bat alokatzen da. Dei egin asteburutan 64 34 14 tfnora.
- Pisua osatzeko pertsona bat behar da Arrasaten, dei egin goizez 79 11 19 tfnora.
- Aretxabaletan garajea salgai Murubide plazan. Tfnoa: 79 29 19.
- Guztiz jantzita dagoen ileapaindegia salgai. Tfnoa: 79 67 12.
- Pisua osatzeko pertsona behar da Erguinen. Tfnoa: 79 71 16.
- Etxebizitza salgai Olarte kalean. Tfnoa: (947) 27 01 00.

Lana

- Andrea prest umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 76 33 48.
- Ingeleseko klase partikularrak behar dira. Tfnoa: 79 72 92.
- Umeak zainduko nituzke. Dei egin 79 60 16 tfnora.
- OHOKo klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 60 16.

- Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Kotxea beharrezkoa da. Dei egin 8etatik aurrera 79 77 57 tfnora.
- Furgonetadun mutila lan egiteko gertu. Tfnoa: 77 04 87. Arratsaldetan.
- Emakume euskalduna orduka etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- OHOKo klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 71 05. Miren.
- Bi neska gertu gaude etxeak, atarteak edo bulegoak garbitzeko. Tfnoak: 79 82 18 Mari Jose edo 76 06 79 Maribi.
- 30 urteko emakumea etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko edo edozein lan egiteko gertu. Tfnoa: 77 06 92.
- Alemana hutsetik hasita ikasi nahi nuke. Norbait erakusteko prest balego, deitu dezala ilunkaratan 79 41 94 tfnora. Miriam.
- Klase partikularrak ematen dira urte osoan. Talde txikiak. Pertsonal espezializatu. Dei egin 5etatik 7etara 79 93 03 tfnora.
- Esperientziadun neskak pertsona nagusiak edo umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 72 92.
- Esperientziadun txoferra C1, C2 eta D karnekin lan egiteko prest. Dei egin 79 60 16 tfnora. Pello.
- Zure etxea txukuntzen lagunduko dizut. Gauzak zintzilikatu, apalak edo tendereteak jarri, kurtinen rielak jarri... edo konponketa txikiak: elektrogailuetan, altzarietan... Kontsultetarako dei egin 79 80 25 tfnora.

Salerosketak

- Salgai: karameluentzako 10 pote handi, izozkien tzako kamara eta estreinatu barik dagoen labe bat (Salvat markakoa). Tfnoak: 77 00 91 eta 79 23 58.
- Citroën AX salgai. SS-AG. Dei egin 79 82 10 edo gaeuz 76 35 50 tfnora.
- Zibro Caming RCA-66 berogailu japoniarra salgai. 45.000 PTA. Tfnoa: 79 97 87.
- Cega Master System kontsolako bi joku salgai 10.000 PTAtan. Tfnoa: 79 82 13. Aritz.
- Game boy + Tetris + Double dragon 2 salgai. Prezioa 10.000 PTA. Dei egin 79 11 96 tfnora 13etatik 14etara. Gorka.
- Spectrum ordenadorea salgai 18.000 PTAtan. Tfnoa: 79 93 91.

Denetarik

- Neska batzuk Aretxabaletan buzoneoa edo antzeko zerbait egiteko prest. Tfnoa: 79 04 94. Nagore.
- Eraman alde, nahi duenak eraman ditzake Fagor markako berogailu bi eta aspiradore elektriko txiki bat oraindik ibiltzeko beste. Tfnoa: 79 05 91.
- Emakumezkoen Seiko markako erlojua galdu zait azokatik parrokiarako bidean. Topatu baduzu dei egin 79 57 58 tfnora. Saria jasoko duzu.

Aste Gazte

Bekak

• Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak 1993 Ikerketa beka deitu du. Gaia: Euskalerriko Etnologia. Bakarkako lagun nahiz lantaldeei zuzendua. 2 urtetako iraupena, 2.400.000 PTAko dirulaguntza. Epea: abenduak 31.

• Ikasketa artistikoak Estatu Batuetan sakontzeko bekak. Arloak: zinea, literatura kreazioa, dantza, eskultura, argazkigintza... Epea: urtarrilak 11.

Ihardunaldiak

• Euskal Hizkuntzalari-tzaren Inguruko Ihardunaldiak, Bergarako UNEDen. Urtarrilaren 16tik apirilaren 10era. Matrikula-epea: abenduaren 19rarte. Tasak: 15.000 PTA.

Lanpostuak

• Donostiako Zorroaga Patronatuak honako lanpostu hauek betetzeko deialdia egin du: OTL (ATS) 3 lanpostu, 3 atal arduradun (titulazioa: LH1), 4 klinika laguntzaile, biltegitzain 1

(LH1), sukalde laguntzaile 1, 5 garbitzaile, 3 garbitzaile-zerbitzari eta gidari bat. Epea: abenduak 5.

Lehiaketak

• Eibarko Hiria Gazteen VIII. Ipuin Lehiaketa. 25 urtetik beherako gazteei zuzendua. Euskaraz nahiz gaztelerez. Gai librea. Epea: azaroak 26.

• "Giza eskubideak" idazketa lehiaketa, OHO-ko goiko ziklo eta BBB-ko ikasleei zuzendua. Euskaraz nahiz gaztelerez. Maila bakoitzeko 2 sari (plaka oroigarria eta txangoa). Epea: abenduak 10.

"Intsumisioa kartzela barruan ondo ikusita dago, bai beste presoen aldetik, baita funtzionarien aldetik ere, ikusten baitute gu gainontzeko espetxeratuaren moduan ezin gaituztela tratatu"

JOSEBA LAZKANO (INTSUMISOA)


Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

ZER NAHIAGO?

Patxi Bengoa

Santa Agedako Ibabe Tailerrekoa

- Txekez ala diruz ordaintzen dute gehienek? Normalean diruz ordaintzen dute.
- Bigarren eskuko kotxea erosiko zenuke? Ez, ez dut uste.
- Galtzerdi zuri ala beltzak? Zuriak.
- Oilaskoa ala filetea? Filetea.
- Euskal kantak ala rock-a? Biak, segun ze momentutan.
- Egin duzun inbertsiorik onena? Nire kotxea.
- Eskutitzak hartzea ala bidaltzea? Hartzea, gutxi bidaltzen ditut eta.
- Badakizu tangoa dantzatzen? Ez.
- Antiojuak ala lentilak? Bat ere ez dut erabiltzen.
- Sagarra ala laranja? Laranja.
- Konpondu ezin daitekeen aberia? Istripu larri baten ondorioz sortu daitekeena.
- Olio usaina ala pintura usaina da txarrago? Biak ere txarrak.
- Kotxe baten parterik inportanteena? Motorra, noski. Bihotza da.
- Etxean baduzu animaliarik? Ez.
- Juergazalea zara? Bai, batzutan bai.
- Negar egin duzun azken aldia? Ez dut gogoratzen.
- Ze ordutan jaikitzen zara? 8ak aldera.
- Zeren aurrean egingo zenuke korrika? Zezenen aurrean, adibidez.
- Trajez ala kaleko erropaz ezkondu zinen? Trajez.
- Gizon serioa zara? Ez, ez da oso ona hain serioa izatea.
- Nora egingo zenuke bidai bat? Seicheilles irletara.
- Bizarra ala bigotea? Ez bata eta ez bestea.
- Kotxerik onena? Peugeot-a.
- Edurra gustatzen zaizu? Bai, asko gainera.



BERTSOAK

Soldaduzka

1
Alperrikako mila istripu
ta beste mila suizidio
Euskal gazteak bere buruai
galdera hau eiten dio:
gizon jatorrak galdutzeaz gain
zertarako du balio?
mundu guztiak soldaduzkari
uko egingo balio...

2
"Ama Espainia" defendatzea
aitzaki gisa harturik
mila euskal gazte daramatzate
atzerrira behaturik
euren betiko printzipioen aurka
armak eskuan harturik
gero diote: "istripuz hil da",
ez dago eskubiderik.

OIER SARASUA



**PUB
HAIZEA**



**ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK**



77 05 65



JOSU
TXOKOLATEGIA
KAFETEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66

**Asteroko
eskaintza**

Azaroaren 23tik
27ra bitartean

**%10eko deskontua
TXANDALETAN**



Uriarte
SPORT

Olarte, 6 Tfnoa: 79 27 78
ARRASATE

Jose Ramon Vitoria

Akademiako zuzendari berria

Juanito Arzamendi jubila-tu dela eta, Jose Ramon Vitoria da Arrasate Musikaleko zuzendaria berria. Bost urte zituela hasi zituen musika ikasketak eta ordutik Arrasate Musikaleko ikasle, akordeoi irakasle eta azkenik zuzendari postuan dugu.

— Zein izango da zure helbururik inportanteena zuzendari bezala?


— Zuzendari pedagogikoa izango naiz. Baina helburuak zehaztu baino lehen, oso inportantea da kontutuan hartzea 1986ko legea desagertu eta LOGSEarekin batera gauza asko aldatu direla. Alde batetik ikastola eta eskoletan ikasgai bezala sartu dugu musika. Hau da, musikako oinarrizko gauzak erakustea da gure helburua, baina ez solfeoa, baizik beste ikuspuntu batetik ikusita, ikuspuntu orokor batetik. Eta hortik aurrera jarraitu nahi duena gugana etor daiteke. Bestalde, badugu programa berriak sortzeko asmoa. Adibidez, helduentzako musika hezkuntza garatu nahi dugu, ume atzeratu eta bereizentzako beste programa berezi bat ere egin nahi dugu.

— Askotan esan da musika batzuentzat dela bakarrik, hala da?

— Ez, hori gezur borobila da eta hori da zuzendari bezala izango dudana helburu bat. Musika gauza etilista dela esan izan da baina molde guzti horiek apurtu egin nahi ditut. Nahi dugu jendeak musika gozoz ikastea, borondatez.

— Inguruko abesbatzekin baduzu kontaktuan jartzeko asmorik?

— Bai, Goikobalurekin konkretuki denbora gutxi dela



hasi ditugu kontaktuak. Ahots teknika landu nahi zuten eurek eta hori dela eta, astero astero hona etortzen dira. Bestalde, dantza taldeekin ere badugu harremanetan jartzeko asmoa. Dantzarako teknika oso gaindituta dute baina oinarrizko musikarako teknika falta zaie.

— Eta musika modernoarekin baduzue proiekturik?

— Bai, pop, rock, jazz musikentzat laborategia egin nahi dut eta horretarako lehen urratsak ere emanda ditut. Adibidez, armonia eta halako terminoak oso teknikoak dira, baina musikarientzat beha-

rezkoak direnez, informatikoki bakarrik lortu daiteke tekniko gauza tekniko horiek praktikan jartzea.

— Nola ikusi duzu urte hauetan Juanitoren lana?

— Ondo. Oso lan handia egin du urte hauetan zehar. Baina kontutuan izan behar da lehengo sistema eta legeak ez zirela gaur egungoak bezalakoak. Baina Orkestra Sinfonikoan egin duen lana oso inportantea izan da. Sortu zenetik izan da Arrasate Musikalen eta egia esan, berak bete duen papera erabakiorra izan da eskolarentzat. Badi-

rudi gainera guztiz utzi nahi duela lan osoa.

— Eta badago kontserbatorio bihurtzeko asmorik?

— Momentu honetan matrikula eta azterketa guztiak Donostian egiten dira. Udaletxearekin izan ditugu tratu batzuk baina momentuz ezin daiteke ezer ziurtatu. Gainera, hori lortzeko beste oinarrizko gauza bat lortu nahi dugu. Izan ere, Arrasate Musikal pribatua da eta Udalaren laguntzarekin publikoa bihurtzea nahi dugu, nahiz eta dirulaguntza handia bertatik etorri. Bitartean, beste lege batzuen barruan sartzen gara eta ez dugu aukera handirik geure kabuz beste plangintza bat burutzeko.


— Profesionalki musikari nahi duenentzat, zelako posibilitateak ikusten dituzu?

— Egia esan Arrasaten eta Euskadi mailan ere ez dago posibilitate handirik. Zoritxarrez kanpora joan behar izaten dute, kasu askotan atzerrira. Hori penagarria da baina momentuz horrela daude gauzak. Niri ere tokatu zitzaidan Frantzia ibiltzea akordeoi ikasketak hobetzen.

— Arrasate Musikalen dituzun helburuak labur bilduz?

— Batez ere musika kaleko jendeari zabaldu nahi diot. Jendeak ikus dezala musika beste edozein ikasketaren bezala, eta ez batzuei zuzendutako gauza bezala. Orain arte solfeoarekin bakarrik identifikatu da musika, eta arrasatearrek jakin behar dute musika denontzat dela eta gauza politak eta berriak ikas daitezkeela. Horretarako metodo berriak aztertu ditugu eta talde bakoitzari egokiena bilatu diogu.

“Kaleko jendeak musikari buruz duen ikuspegia aldatu nahi dugu. Musika ez da solfeoa bakarrik. Programa berriak daude, talde bakoitzari zuzenduta”



Ikasleen kopurua gehituz joan da

Gaur egun 462 ikaslek ikasten dute Arrasate Musikalen. Eta irakasleen aldetik, berriz, 31 daude. Hoietatik 13 finkoak eta Arrasatekoak dira eta beste 28 orduka lan egiten dutenak.

Azken urteetan zehar ikasleen kopurua mantendu egin da eta azken bi edo hirutan nahiko handitu da.

Datu aipagarri bezala esan behar da bertako ikasle asko irakasle bezala geratzen direla bertan eta hori da hain zuzen, eskolaren oinarritzko norma bat. Bertan ikasi nahi dutenei aukera eman nahi zaie.

Juanito Arzamendi Arrasate Musikaleko Alma Materra erretiratu

Juanito Arzamendik 65 urte dauzka eta ia denak, neurri handi batean behintzat, musikari eta Arrasate Musikali eskaini dizkio. Hamabi edo hamahiru urterekin musika bandan sartu zen eta bertan pare bat urte egin ondoren, Justo Munarrizekin, bandako zuzendaria zenarekin, pianoa ikasten hasi zen. Valladoliden hasi zituen piano ikasketak eta Bilbon bukatu zituen ikasketak horiek. Ondoren, Francisco Escuderoekin konposizioa, armonia eta antzeko gai teknikoak ikasi zituen.

1960an banda zuzentzen hasi zen eta 1963an zuzendari profesionala izateko oposizioak gainditu zituen. Titulua lortu ondoren, Arrasatera bueltatu zen eta bandaren zuzendari izaten jarraitu zuen, 1974an banda desagertu arte. "Nire penarik handienetakoa izan zen banda-

ren desagertzea. Desagertu ez zedin ahalegin handiak egin nituen baina ez zen posible izan. Egia esan jendeak bandari ez zion jaramon handirik egiten, gu plazan musika jotzen eta jendea dantzara diskotekara joaten zen" adierazten zigun Juanitok.

Urte askotan bandaren zuzendari izan zen gizon honek, bere ametsa egi bihurtuta ikusi zuen, Orkestra Sinfonikoaren zuzendari izatean. Hainbat kontzertu eman dituzte ordutik, Arrasaten eta baita kanpoan ere, eta Arrasate Musikalen sail inportanteena izan da azken urte askotan.

Baina Juanitori jubilatzeke ordua heldu zaio eta bere orde, Jose Ramon Vitoriak beteko ditu zuzendari pedagogikoaren lanak.

Ondo merezitako erretiroa.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralez
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

IZAGIRRE
barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

ARRASATE HOTELA




Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

· AIPUA ·

“Irakasten duzun bakoitzean, irakatsi irakasten duzunaz zalantza izaten”

José Ortega y Gasset

· JEROGLIFIKOA ·



023
456
789

Nola hartu zuten erabakia?

· GURUTZEGRAMA ·

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10						
11						
	12	13		14	15	
16	17			18		
19						

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Harropuztu. 8. Ugaztun haragijale izeneko kalea. 9. *Argiako* kontsonanteak. 10. Barregarria. 11. (Ald.) Niri. 12. Marra. 16. Garbi. 18. Urkiolaren Aldeko Batzordea. 19. Begietako medikua.

Bertikalak 1. Lizartzako itsua. 2. Zoli. 3. Burukatu. 4. Baiezkoetan baita, ezezkoetan ezta. 5. Italiako ibaia. 6. (Ald.) Erdi hitz elkartuetan. 7. Jabe. 13. (Ald.) Lortu aditzaren infinitiboa. 14. (Ald.) Garrak. 15. (Ald.) Epe. 17. Europako Komunitatea.

· HOROSKOPOA ·

Aries Bihar azterketa duzula eta ezer ikasi barik? Jai duzu! Hobe duzu gaueko pelikula ikustea!

Taurus Ez egin kasurik zure kontra esandakoari, gezurra da eta. Ala ez?

Gemini Lagun hori zure atzetik dabile-lakoan? Ja, ja! Segi ametsetan inuxente harrakoa!

Cancer Hurrengo igandean mendiara joatean zakarrak behera jeitsi, zikinontzi hori!

Leo Kaleko guztiak zeure oinetako zikinei begira geratzen zaizkizu. Garbitu itzazu!

Virgo Mr. / Miss Arrasate zarelakoan? Lirain eta lerdengoan badaude.

Libra Bidaia egiteko aukera paregabea duzu oraingoan.

Scorpio Ez duzu batere osasun ona izango. Beraz, aspirinak poltsikoan erabili.

Sagittarius Diruz urri samar ibiliko zarenez, has zaitez afariak etxean egiten.

Capricorn Sasoi onean egon nahi baduzu, 10 bat kilo galdu beharko duzu.

Aquarius Aste honetan ez duzu lantegian lan larregi egingo. Zurea bai zortea!

Piscis Katarro handia harrapatzeko zorian zaude. Zaindu ezazu zeure burua.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarren ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

· RAFA FERNANDEZ ARESTIREN GOMENDIOA ·



“la jubilaziora iristen gaudenontzat, edo dagoeneko iritsi direnentzat, komenigarria da kirol apur bat egitea. Bestela, txikiteoan besterik ez egitea... Baina astakeriak egiteko arriskua ere bada-go”. Horregatik, egiten dena ondo aukeratzea komenigarria iruditzen zaio Rafari: “guk palan egiten dugu taldetxo batek astean birritan. Biolentzia handiegirik gabeko ariketa komeni da, pasiatzea, igerian egitea.... Baina, hori bai, beti medikuaren bijilantziapean”.

· KOMIKIA ·



· PROGRAMAZIOA ·



14 Larunbata

4 Pareak Jokuan.
4.30 ATBketan

15 Igandea

7.45 Larrugorritan
8.15 Monterock
9 Mondragol

16 Astelehena

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me.
7.30 Dokumentala.
8.8.30, 9 Berriak.
9.30 Mondra Sport.
10 Asteko zinea: Amadeus.

17 Asteartea

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
7.30 Dokumentala
8.8.30, 9 Berriak.
9.30 ATB PUB: Programa berria.
10 Asteko zinea: Amadeus.

18 Asteazkena

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
7.30 Dokumentala
8.8.30, 9 Berriak.
9.30 Tertulixan.
10 Asteko zinea: Amadeus.

19 Osteguna

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
7.30 Dokumentala
8.8.30, 9 Berriak.
9.30 ATBketan.
10 Asteko zinea: Amadeus.

20 Ostirala

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
7.30 Dokumentala
8.8.30, 9 Berriak.
9.30 Monterock.
10 Asteko zinea: Amadeus.

· SOLUZIOAK ·

JEROGIFIKOA

Aho batez.
EK
Ugazaba. 13. Rol. 14. Aus. 15. Iar. 17.
Pelatu. 4. Ere. 5. Tiber. 6. Te. 7.
Bertakak 1. Kaxiano. 2. Ozen. 3.
16. Neto. 18. UAB. 19. Okulista.
9. Rg. 10. Xebrea. 11. Ine. 12. Arria.
GURUTZEGRAMA
1. Kopetaru. 8. Azeti.

ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK

77 05 65

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

IBARRA
Garajea S.A.



EBRO
NISSAN


Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

NAROKI
Urrezko bitxiak

NAROKI
Opariak, Jostailuak, Liburuak,
Paperdegia
Erdiko kale, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 20 47



OPEL ASTRA BERRIA



Puntuatuzeko Injekziodun Astra motore-serie berria, potentzia handiagoa cm³-ko.

POTENTZIA ADIMENTSUA

*Imajinatu! Opel Kontzesionariak
Opel Astra berriaren potentzia
egiaztatzen gombidatzen zaitu.*

*Beti zurea,
Opel Astra.*



McCann

Imajinatu Astra motore berrien posibilitateak.
Imajinatu 82tik 150 CV-erainoko potentzia adimentsua.
Imajinatu, zeure ekonomian pentsatzen duen potentzia, eta eraginkorra, azken-azkeneko.
Puntuatuzeko Injekzio Sekuentziala duena.
Ekologiaren adiskide, 3 bideko Katalisatzailea integratuta. Imajinatu, potentzia adimenarekin bat eginda. Opel potentzia duzu.

Gidatzeko atsegina dagoeneko ez da zilindrada-kontua, adimen-kontua baizik.
Egiaztatu zeure Opel Kontzesionari Ofizialean.
Gombidatua zaude.

OPEL

BADAZU OPEL ASTRA-RIK 1.547.000 PZTA.*

OPEL ASTRA, ALEMANIAKO INJINERUTZA ETORKIZUNERAKO

* Fabrikatzeileak gomendaturiko prezioak (Penintsula eta Balearetarako), garraioa, BEZ eta emate-aurreko gastuak barne. Kopuru handiko salmentak ere bai. Eska informazioa zeure Opel Kontzesionari Ofizialari eta finantziario eta leasing-erako, ez ahaztu Opel Credit, Opel Leasing eta Opel Renting-en baldintza paregabeak.

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako

kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENTZIAZ.